

ttipi-ttapa



MARTXOAREN 8RAKO MOTORRAK BEROTZEN

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat hitzordu izanen dira eskualdean. Horien artean, Baztan-Bidasoaldeko ekitaldi nagusia martxoaren 6an Beran egingen dute eta martxoaren 8an Leitzan manifestazioa.




XIMIKO BERRI BIGARREN ESKUKO DENDA

Bidelagun elkarteko Lagun Bide Zerbitzuak enpresak bigarren eskuko denda bat ireki du Iruritan. Kontsumo arduratsua bultzatu eta egoera zaurgarrian daudenei aukera bat eman nahi diete. / 8



Xulufriak Sare Feministaz Iratxe Muxika eta Garazi Migeltorenarekin / 10

SINADURAK	
 MAIDER IANTZI GOIENETXE / 3	 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
 ELURRE IRIARTE BAÑEZ / 3	 ENAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI / 4



Adur Etxezarreta Olinpiar Jokoen ondotik Munduko Kopari begira / 49



ZOZKETA / 60

BERA LESAKA

Agenda 2022

**OTSAILA
MARTXOA**

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

LESAKAKO
UDALA

OTSAILA	<p>MARGO ERAKUSKETA OAIA PERUARENA Larunbat eta igandeetan 16:00-20:00 Ikastolako areto nagusian Antolatzailea Labiaga ikastola BERA</p>	<p>26 LARUNBATA BERA</p>
	<p>HAURENTZAKO IKUSKIZUNA KONTU KANTARI (LA ENANA NARANJA) 17:00 Kultur etxean Iraupena 60 min Sarrera 4 € (sarrerak aitzinetik Agara prentsan salgai) BERA</p>	<p>5 LARUNBATA BERA</p>
	<p>INAUTERIAK 27 IGANDEA BERA</p>	<p>6 IGANDEA BERA</p>
	<p>INAUTERITAKO ASTELEHENA 28 ASTELEHENA BERA</p>	<p>9 ASTEAZKENA BERA</p>
	<p>MARTXOA 5 LARUNBATA BERA</p>	<p>10 ORTZEGUNA BERA</p>

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIESeK Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

ttipi-ttapa
30.000 irakurle

Diario de Noticias
9.000 irakurle

Diario de Navarra
6.000 irakurle

Bertze batzuk
4.000 irakurle

Berria
3.000 irakurle

Gara
3.000 irakurle

DATU ITURRIA: CIES, 2021eko bigarren neurketa

SEXUAREN ARABERA

%55,6
EMAKUMEAK

%44,4
GIZONAK

ADINAREN ARABERA

14-19 urte	20-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	+64 urte
%7,3	%5,6	%10,7	%13,8	%25,6	%19,1	%17,9

IKASKETA MAILAREN ARABERA

%15,4
Oinarrizko batxillergoa

%36
Unibertsitatea

%15,1
Oinarrizko ikasketak

%33,5
Goi mailako batxillergoa

SINADURA: Ttipi-Ttapa



NIRE TXANDA

MAIDER IANTZI GOIENETXE

Etiketak

Arropa baten etiketak informazio praktikoa ematen digu: zein osagairekin eta non egina den, zein etxetakoa den, nola zaindu... Aldiz, beldurgarria da nolako arinkeriarekin definitzen ditugun pertsonak. Jatorra, astuna, dibertigarria, urduria, jatuna, alferra, fina...

Aunitz erraten da haur bat 'ona' edo 'gaiztoa' dela. 'Erraza' da kasu egiten duena, entzuten ez zaiona, heldu ttiki bat iduri duena. 'Zaila', berriz, bere ideiak defendatzen dituena, kaskartzen dena, gehiago eskatzen diguna. Finean, haur bat bezala jokatzeko duena. Obedientzia saritzen da, baina ez da osasungarriagoa norbere erantzunak bilatzea?

Kanpotik paratzen dizkiguten etiketa hauek sinetsi eta horien arabera portatzen gara. Ez dira bidezkoak, ez digute irekitzen eta garen guztia ateratzen uzten, eta erraz jarri bai baina ikaragarri kostatzen da kentzea. Jantzi berriekin bezala, aitzurrak hartu eta soka mozten saia gaitezke...

«EZ DA OSASUNGARRIAGO NORBERE ERANTZUNAK BILATZEA?»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Bakea eta maitasuna

Norberak zer erraten duen eta bertzeak zer ulertzen duen... batzutan guztiz kontrakoa. Zaragoza eta Chelsearen arteko futbol partida batean, etxeko zaleek kiroltasun handirik gabe beraien jokalariei batek bertzea zanpatzea eskatzen zutenean (*Písalo*, gaztelaniaz) bakea eta maitasuna ulertu omen zuen kazetari ingeles batek (*Peace and love*, ingelesez). Ba hori...

NABARMENTZEKOAK



LEIRE
BARAIBAR
ARESO



RAKEL
RICO
BERA-LEITZA

Urte hasiera bikaina izan du Aresoko korrikalariak. Parte hartu duen bi lasterketetan berea izan baita lehen postua: Berastegiko Negu Trail eta Zestoako Kobaz koba lasterketetan.

Sortzez beratarra eta Leitza bizi den argazkilariaren argazkiekin emakume baserri-tarren egutegia atera dute Leitza aldean. Emakumeek egiten dituzte baserriko lanak agerian utzi nahi dituzte.

ATZERA BEGIRA



2012-02-23 · TTIPI-TTAPA · 560 zk.

Bilgune Feministako Saioa Iraolarekin

Euskal Herriko Bilgune Feministaren hamargarren urteurrena gogoan, Saioa Iraola Urkiola Bilgune Feministako leitzarrarekin bildu zen TTIPI-TTAPA 2012an. Hamar urtez «borroka feminista asko indartu» dela zioen, eta «mugimendu indartsua» izatearen beharra azpimarratu zuen, «zapalkuntza patriarkalarekin bukatzeko». Baina «zoritzarrez, hasierako helburu berak» zituztela aipatu zuen, «oraindik ez baitugu nahi dugun herri feminista eraiki»: «Prekariatatea da gure bizitza ezaugarritzeko terminoa». Hala ere, «emakumeen eskubideen aitortza lortzeko une garrantzitsua» zela azaldu zuen eta «emakumeok subjektu politiko» bilakatzeaz aritu zen: «honela soilik lortuko baitugu dagozkigun eskubideen bermea eta gure bizi baldintzak hobetzea».



erran.
eus



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Garnio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2022ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerrekako 42€
Leitza 33€
Hego Euskal Herria 50€
Ipar Euskal Herria, Europa 98€
Amerika eta Australia 147€



KOLABORAZIOAK

ELURRE IRIARTE BAÑEZ

Ari dira, baina gu ere ari gara

Oroitzen naiz pandemia hau hasi zelarik eta #etxeangelditukogara aldarrikapenarekin ari ginelarik, uste genuela egoerak behartuko gintuela gelditzera, pentsatzera, hausnartzera eta hobetzera. Lurrak horretara behartu eta gure begirada ondokoengana zuzentzeko eskatuko baligu bezala, non ginen eta zertan ari ginen hausnartzera. («Hemendik hobeak aterako gara», oroitzen zarete?).

Oroitzen naiz Osasunbideko langileekin elkartasuna erakusten genuela, osasun sistemaren larritasunak behartuko zituela agintariak, behingoz, duela urte batzuk egindako murrizketak desagerraraztera, behar bezalako osasun arreta finkatzeko.

Oroitzen naiz zaintza sareak sortu genituela, eta hala, zaintza erdigunean modu arras praktikoa paratu genuela, egoera pandemikoaren gainetik jendea zegoela ikusaraziz. Zahar etxeekin oroitzen naiz aunitz, nola langileak, beren ahalmenaren gainetik, pandemiaren kontra aritu ziren jo eta su. Egoera bertsuan segitzen dute.

Eta orduz geroztik, kasik bi urte pasatu dira eta gaurko solasek bertze bide bat hartu dute: musukoa bai edo ez, txertoa bai edo ez, pasea bai edo ez... eta halako bai eta ez aunitzekin gabiltza, denak haserre, eta bakoitza bere

**«ZORIONEZ
BADAGO ITSUA
IZAN NAHI EZ DUEN
JENDEA»**

erabakiak justifikatzeko pandemia modu batez edo bertzez interpretatzen. Denek bat egiten dugu egoera batean: aspertuak egotean hain zuzen. Aspertuak, haserre, baina hasmenta hartan munduak eman zigun

abisuari kasurik ez. Eztabaidatu beharko dugu pandemiaren kudeaketari buruz, doike, baina ez dezala solasa monopolizatu.

Eta kontu horrekin burua nekatzen ari naizela, oroitu naiz lurraren kontra ari direnak egiazki enpresak direla. Sobera urrundu gabe, hor dugu Magna, Erdizen berriz sartu nahian. Hor da Arozteguia SL lurra eta bizitzaren defentsan ari direnak epaitegietara eramanez, zigor ekonomiko handiarekin (eta akaso kartzela) arrazoiak lortu nahian. Eta hor dugu Canteras Acha, bizitoki eta nekazalgorako diren lurretan harrobi bat egiteko intentzioa erakutsiz. Hirurak ere zaintzarekin eta etorkizun jasangarriarekin deus ikustekorik ez duten proiektuak, lekuz kanpokoak direnak, ekonomia eta negozioa, bizitza eta jendearen gainetik paratu nahi dutenak.

Ohartu naiz ari direla, baina gu ere ari garela. Jendea bere xilkoari begira dagoela beldur naizelarik, hortxe agertzen da jendea erantzunez, espero ez duzun tokitik, lurra, bizitza eta kultura defendatuz. Eta ohartu naiz, zorionez, badagoela aitzinerat begiratzearekin batera ezker, eskuin eta bere inguru guzira begira dagoen jendea. Itsua izan nahi ez duena, ziztu bizian joan beharrean, (inor gibelean utzi gabe) abiadura egokian joan nahi duena. Poliki baina gelditu gabe.



EÑAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI

Eztabaida faltsuak

Ehunka eztabaida entzun ditugu azken aldian komunikabideen bidez eta politikarien erranetan: Test azkarrek 2,94 balio behar duten edota debalde izan behar duten; haragia ona den edo ez; makroetxaldeak existitzen diren edo gurasoak diren; dozenaka ordu tenisleri egozentriko bati buruz solas egiten, gezurra erran eta Australiatik kanporatua izan delako. Ez dakit konturatu garen bai politikari profesionalen, bai komunikabideen helburua gure atentzioa desbideratzea dela. Gezurra erran behar digute, egia erranez gero ez genukeelako inork beraietaz ezer jakin nahi izanen, ez genielako bozkatuko. Eztabaida faltsuak.

Urtarrilaren 29an manifestazio jendetsuak egin ziren Bilbon zein Iruñean, GKS (Gazte Koordinadora Sozialistak) deituta. Politikariak eta komunikabideak saltzen diguten eztabaida faltsu guztiez harago, gauzak bere sakontasunean ulertu eta azaltzeko borondatea dauka mugimendu honek, eta horregatik lortu du hain urte guttitan, existitzen ez zen zerbait izatetik kontuan hartzeko indar bat izatera pasatzea.

Covid-a existitzen da. Hortik aitzinera, ziur aski bere larritasuna aunitz haunditu dute gure agintari zintzoak. Eta dudarik gabe, konfinamendua hasi eta, hirugarren egunerako GKS salatu zuen bezala, osasun-arazo honen aitzinean ematen ari diren erantzunak gutti dauka osasunetik, eta aunitz autoritarismotik. Pandemiaren eskusa erabiliz, langile klasea diziplinatzen ari dira. Gure egoera ekonomikoa gibelka

doan bitartean, Covid pasearen edo maskararen karrikako erabilera bezalako neurri faltsuen derrigortasuna ezartzen dute, poliziaren diru-partidak handitzen dituzte, murrizketak onartzen dituzte (Europako diru funtsak onartuz, edo lan erreforma indarrean mantenduz), osasungintza deuseztatzen ari dira, eta abar luze bat.

GKS markatzen duen bertze gauza bat, politikari guztiek berdina egiten dutela da. Eta izan ere, aipatzen ari naizen egoera hau guztia (ekonomikoki langileok gero eta okerrago egotea, politikoki langileok gero eta eskubide guttiago izatea) «historiako gobernu aurrerakoiena» omen denarekin ari da gertatzen, hau da, PSOE-Podemos gobernuarekin eta, bertzeak bertze, EH Bilduren eta ERCren babesarekin. Honek agerian uzten du politikari profesional guztiak burgesiaren intereserako lanean ari direla, ezker-eskuin abaniko guztia. Interesgarria litzateke ezker-eskuin eztabaida faltsu horrekin bukatu, eta honetan ere gauzei bere izenez deitzea: Burgesiaren alderdiak (eskuin-ezker abaniko guztia) edota langileon alderdia (gaur egun oraindik existitzen ez dena, zoritxarrez).

Bazter ditzagun eztabaida faltsuak, eta uler ditzagun gauzak bere sakontasunean. GKStik langileon alderdi hori bultzatzeko lanean segituko dugu. Aipaturiko manifestazioetako lemarekin bukatuko dut kolaborazio hau: «Burgesiaren diktadura gelditu! Ofentsiba politiko eta ekonomikoa borrokatu!».

11 GALDERA LABUR

RAKEL RICO LOPEZ LEITZAN BIZI DEN ARGAZKIARIA

«Baserrian urte osoan egiten diren lanak erakusten saiatu gara»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Lasaia eta txukuna.

Zein dira zure zaletasunak?

Irakurtzea asko gustatzen zait, liburu asko irakurtzen ditut, eta musika beti jarrita behar dut lanerako.

Argazkilaria zara ofizioz. Nolatan hasi zinen argazkiak ateratzen?

Argazkilaritza ikasi nuenean azken proiekturako emakume baserritarrei buruzko proiektu bat egin nuen, baina, ez nintzen argazkilaria moduan lanean hasi. Orain dela bi urte pauso hori eman nuen eta etxean estudio bat jarri nuen.

Zer da argazkilaritzarik gehien gustatzen zaizuna?

Estudioko goxotasuna. Haurdunaldiko argazkiak eta jaioberriekin egiten ditut argazki

gehienak, beraz, haiek etxean bezala senti daitezen saiatzen naiz.

Leitzako, Goizuetako, Aresoko eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin batera emakume baserritarren inguruko egutegia egin duzu. Nolakoa izan da lan hori?

Saiatu gara urte osoan baserrian egiten diren lanak erakusten, emakumeak baserrian ere lan asko egiten dutelako eta askotan ez delako ikusten.

Zaila izan da argazkiak ateratzeko prozesua?

Oso erraza, haiek bere lanetan zehar atera nituen, oso gustura ibili nintzen. Bakoitzaren istorioak entzutea ere asko gustatu zitzaidan.

Baserritarren argazkiak bildu dituzue egutegian, baina, argaz-



ki estudioa ere baduzu Leitzan. Zer duzu nahiago, argazkiak kanpoan edo estudioan egitea?

Biak asko gustatzen zaizkit, egia esan bizi garen tokian, ditugun paisaiekin, aukera asko ditugu. Udazkenean kanpoan argazki asko egiten ditut. **Nolakoa izaten da argazki estudioko saio bat?**

Orain gauzak asko aldatu dira, teknikak, estiloa... Ez dut fokurik, dena egiten dut kanpoko argia aprobetxatuz Argi naturala, gela bat bezalakoa

da, etxeko goxotasunean bezala.

Zer behar du argazki batek onazateko?

Argi ona eta naturala, poserik gabe.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Orain bezala jarraitzea, ahal bada lan gehiagorekin.

Eta epe luzera?

Ekitaldien antolakuntza eta gestioa ikasketak egiten hasi naiz, eta ezkontzen munduan sartzea gustatuko litzaidake.



Merkealdia

1951tik

Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toailak

Edredoi-azal nordikoak

BOTA BERTSOA

AITOR AROTZENA ALBISU

LESAKAKO BERTSOLARIA

BAZTAN-BIDASOKO XXXIV. BERTSOPAPER LEHIAKETAN D MAILAN 2. SARIA

Endara bizirik

Doinua: Eguzkiak urtzen du han goian

1. Bi mila urte igaro dira
joan da hogeigarrengoa
bertso-xorta bat ontzera dator
niregana motiboa
Lesakaldean aurkeztu dute
aurreproiektu eroa
Nordex Energy delako batek
bota baitu ordagoa
parke-eolikoa marraztuz
etorkizun oparoa
auzo polit bat zanpatu dute
non gogoa han zangoa
ingurua hondatu nahi dute
zainduz ingurugiroa
bakarren batek galdua dauka
lparra eta hegoa.

2. Handik honuntza bidali zuen
egitismo hau haizeak
Zein ote dira sustatzaileak,
zein ondoko konplizeak?
Zeinen sakela beteko luke
triskantzak hau agintzeak?
Airez aseko al dira tripa
diru-gose_ezin aseak?
erroten neurri neurrigabea
balio du aipatzeak
ehun ta hoge metro zutabe
ia ehun helizeak
Bera bakarrik ez da_eroriko
lehenik firma-biltzeak,
agian gero helduko dira
bultzakada ibiltzeak.

3. Agiña, Kopa, Eskolamendi
Oartzungo mugarría
itsasaldere begiratuta
tente Aiako Harria
orbela bezala airez aire
txepetxa, txantxangorria
belaunaldiz belaunaldi zutik
arbasoen baserria;
edonondikan begiratuta
inguru zoragarria
nola barkatu hau desagertzen
utziko lukeen herria?
Proiektu honek non du babesa,
non zentzua, non neurria?
molde zaharrean egin bada
ez da berriztagarria!

4. Herritik goiti abiatuta
Nabaz, Katazpegi, Zala
segi aitzina, agertuko da
Auzoberri berehala;
denak baserri-auzoak dira
eki eta mendebala
eguneroko eginahalean
zaildua larru-azala
hau dena hankaz goiti jartzera
dator multinazionala
berarentzat kontu-balantzean
nahiz izan gauza hutsala
jardunean hasi aitzinetik
kontua egin dezala:
Auzo bizia utziko luke
basamortua bezala.

5. Nolabaitere hartu nahi dute
preso haize-zirimola
berdin zaigu Acciona, Endesa,
Repsol edo Iberdrola,
gibelean nor kristo dagoen
guri ez zaigu axola,
irri zuriz zein etorriko den
kolonia dariola;
Auzo hau izan dugu sehaska,
eskola eta eskola
garraxi egin, oraindik bada
gure zainetan odola:
«inoiz ere ez dugu utziko
bilakatzea inola
lehengoen kabi izandakoa
ondorengoen kaiola!»

6. Izena berez zakarra dauka
aerogeneradorea
moderno eta oraindik orain
inon eraiki gabea
beraz Endarak dauka lehena
izateko "ohorea"
paper gainean jarri diete
egitismo "dotorea"
auzotarrak ez dituzte baina
kontuan hartu, ordea
denak elkartzu eta babestuz
bildu dute adorea;
ongi pentsatzen hasi ezker
ez al litzake hobea,
hiriburuko bulego baten
kajoi zokoan gordea?

7. Ortzimugako mendi lerroan
ageri dena zer ote?
Argi-indarra modu garbian
sortuko dela diote
txapa, asfalto, burdin herdoildu
porlana, ormigoi-bloke
garbitasuna hor ikusteko
itsu ez bada miope
Hor paratuta honek norbaiti
mesede egingen lioke?
Zaldi gainean, bere eroan
zuzen zebilen Kixote:
«Santxo lagun, ez dira errotak
baizik erraldoi arlote!»
Haizea eta natura beti
ez direlako bikote.

8. «Dena ez da beltz ala zuria,
aski zabala da grisa»
—Hala diote ke-saltzaileek
apez modernoek gisa—:
«Txukun-dotore aurkeztu dugu
PDFan krokisa,
dakarkigun aurrerapenari
eman dezaiogun hitza:
berriztagarriak direlako
ingurumenaren giltza,
zergatik ez aprobetxatu
aldiro sortzen den brisa?»
Galdera horri erantzuteko
Auzoberritarrak mintza:
«Ez direlako bateragarri
parke hau eta bizitza!».

9. Haizegoak gau epela dakar
Mikel Laboa kantari
bere errautsak ez dira urrun
inguruaren zaindari
leihoetan ez dira ageri
mutxurdinak zelatari
baserri-auzo gazte bat baizik
adi letorkionari
Etxe_atarian jira-biraka
bi katakume jostari
belagi, baso, zuhaitz, erreka
eta baratze ugari
horregatik kaso egizue
ozenki diogunari:
Gure bazterrek maite ditugu
gorroto proiektuari.

10. Txorien kantu goxoen orde
kamioien orro ozena
harat-honata ibil daitezen
ibilbide errazena
bidexka bihurria zen maldan
asfalto bide zuzena
tresna-biltegi bihurtu dute
harizti ederra zena;
sorgailu edo haize-errota
berdin-berdin da izena
hamaika paratu nahi dituzte
bertze batekin dozena,
hala diote: «ezin da galdu
aurrerapenaren tren»;
Aitzinera ez da mugituko
desagertu egin dena.

11. Behiak alhatzen duen soroan
luzerna eta hirusta
moxala behor bihurtzekotan,
negela attonburuxka;
erretrato hau egin ez dadin
bapatean mila puska
ez da_aski sare sozialetan
hainbat 'like' edo 'me gusta'
lortu ondotik lasai etzanda
asebeteen kuluxka
gorputza tinko, belarri erne
aditu gure purrusta:
«gogoan hartu hasiko balitz
noizbait errotari puzka,
haizea erein duenak beti
ekaitza duela uztza».

12. Ura_eta sua belaun azpitik
dio betiko erranak;
Haizea ere ez du berdina
brisak edo urakanak
Endarak lehendik baditu zenbait
etxe ur azpira joanak
hondoratuta itxaropenak,
famiilik, harremanak;
denborarekin ezin garbitu
urtegiaren orbanak;
baina lan-tresna beti prest baitu
borondatea daukanak,
tenorez gaude, orain badira
egin beharreko lanak
zutik daudenak ez izateko
haizerrotak eramana.



13. Kapitalismo bortitzak dakar etengabea haztea, modu xumea bizi zirenek erakutsia ahaztea lehendik eoliko aunitz bada, emaitza: eszedentea beraz zertara dator berria hemen egiten hastea; auzoek zainduz eta babestuz beraien txoko maitea plataforma bat osatu dute zabalik dauka atea, oihartzun eginez balio du berriz ere erratea: «ez dugu izan nahi zuen asmoak dakarren albo-kaltea».

14. Eskatu gabe etorri zaie kaka-nahastea auzora Endarako lasaitasunari sartu diote aizkora; agian gogorregi dirudi baina ez da metafora ez du ondarea begiratzen, ezta fauna ezta flora, ez barrideen bizimodua paratzea hankaz gora udaberriak ekarri zien korapiloa lepora, geroztik aunitz mugitu dira baina badoa denbora, orain lan egin, ez etortzeko negar eginez gerora.

15. Jakina mundu globalizatu handi baten bizi gara eguneroko zurrunbiloan sartuak hemendik hara baina tikiak indarra dauka, horren adibidea da: Ameriketako tornado bortitz abudo bihurtzen bada Australiako bazter bateko tximeletaren hegada; izarren hautsak unibertsoa ernaldu zuen gisara, uholdea sortzen du ur-tantak zinurriak lurrikara bere tikiak, handia denez Zaindu dezagun Endara!

16. Nere bizitzan orain artean ez dut inoiz ikusirik, apoaren bizkarreko latza bezain gauza itxusirik! Proiektu honentzat ere ez da hainen solas egokirik zakarkeri hau eraikitzeko ez al zen bertze tokirik? Auzoa kontuan hartu gabe ez da energia garbirik munstro hauen itzalpean ez da ez azienda, ez ehizirik, bizilagunik gabe ez dago ez etxe, ez baserririk Kontuak kontu, kontu dezagun denok ENDARA BIZIRIK!

HEMEROTEKA



«Olinpiar Jokoetatik oso gustura itzuli naiz. Postua ona da, baina batez ere onenekin borrokan aritu izanak asetzen nau (...) Azken hilabeteetan oso dinamika onekin nentorren eta uste dut maila oso onean ibili naizela. Hala ere, entrenamendu batzuetan hain aurrean ikustea pixka bat sorpresa izan zen. Banekien gero entrenamenduak beti entrenamenduak direla, onenek esperientzia ateratzen dute lasterketetan eta maila asko

igotzen da. Neure burua hor ikusi dut eta horrekin geratzen naiz (...) Azken hilabete honetan emozio asko bizi izan ditut, niretzat oso hilabete ona izan da. Batzuetan kudeatzeko zaila da, baina saiatzen naiz dena lasaitasunarekin hartzen eta gauzak egiten ari naizen bezala egiten ahalegintzen, horrek ekarri bainau emaitza hauek lortzera. Orain nire asmoa berdin jarraitzea da eta ea denboraldi bukaera polita egiten dudan».

ADUR ETXEZARRETA I ARESOKO ESKIATZAILEA GARA. 2022.02.15



ANA GALAR ARIZTEGI





Mikel Ortega, Javier Gutierrez eta Ixidro Herguedas dira Ximiko Berriko arduradunak. ONDIKOL

«Kontzientzia sortu nahi dugu ekonomia zirkularraren bidez»

MIKEL ORTEGA ARRAZTOA XIMIKO BERRI

Bigarren eskuko denda bat ireki du Bidelagun elkarteko Lagun Bide Zerbitzuak enpresak Iruritan. Arropak, oinetakoak, altzariak, jostailuak eta bertze hainbat produktu eros daitezke prezio merkean, erabiltzen ez diren gauzei bigarren bizitza emanez

R. OSKARIZ | IRURITA

«Jendeak behar ez dituen eta egoera onean dauden gauzei bigarren bizitza emateko» leku da Ximiko Berri, Bidelagun elkarteak Iruritan ireki duen bigarren eskuko denda. Mikel Ortega, Javier Gutierrez eta Ixidro Herguedas dira dendako arduradunak joan den urteko urrian ireki zutenetik.

Mikel Ortegak adierazi digunez, bi helburu ditu proiektuak; «alde batetik, berreraipena eta kontsumo arduratsua bultzatzea. Bertze aldetik, egoera zaurgarrian dauden pertsonen aukera bat ematea beren bizitzak berreskuratzeko, egunerokoan ai-

tzinerat segitzeko gogoia eta ilusioa piztuz».

Arropak, oinetakoak, altzariak, etxeko tresnak, jostailuak, liburuak... «denetik» aurki daiteke saltokian. Arropak eskualdean banaturik dautzen 17 edukiontzietatik biltzen dituzte astero, izan ere, urtean 85.000 arropa kilo biltzen dituzte. Altzariak eta bertzelako produktuak, berriz, «etxe etxe biltzen ditugu norberak ezin baditu ekarri». Produktuak biltzean sailkatze prozesu bat izaten dute; «egoera onean daudenak dendara eramaten ditugu, bertze batzuk konponketa edo itxuraldaketak bat behar dute eta dendan

saldutzeak ezin direnak birziklaturera eramaten ditugu. Trapuak, hariak eta material isolatzaileak egiten dituzte, bertzeak bertze, saltzen ez ditugunekin».

Sailkatze prozesu honetan, Elizondoko Lanbide Eskolako Ostatu arloko eta arropa garbiketako zikloko ikasleekin elkarlanean ari dira; «arropak garbitzen dituzte eta jostailuak berrikusten dituzte. Adibidez, puzzleak egiten dituzte, piezarik falta ez dela ziurtatzeko». Lekarozko institutuko 4. DBHko teknologiako ikasleen laguntza ere dute, «altzariak konpontzen eta berreskuratzen dituzte».

Proiektuak aitzinerat egiteko, jendartearen konpromisoa «ezinbertzekoa» dela kontatu digu, «laguntzarik hoberena kontsumo ohiturak aldatzea eta Ximiko Berri kontsumo ohitura berri horietan txertatzea izanen litzateke».

Denondako denda

Ximiko Berri «herritar guzietan zuzendutako denda da, edozein saltoki bezala». Izan ere, «eskualdeko jendearen kontsumo aldaketan eragile aktibo bat izan nahi dugu. Egia da ohiko produktuak merkeago eskuratzeko aukera ematen diegula baliabide guti dituzten pertsonen, baina proiektuaren helburua ekonomia zirkularraren bitartez kontzientzia sortzea da, eta horren inguruan proiektu berriak garatzea».

Ahoz ahokoak «arras ongi funtzionatzen du» jendartean, eta dendara sartzen direnean «harrিতa gelditzen dira zenbat gauza eta zein prezio merkean ditugun ikustean». Hala ere, «jende aunitzek ez daki existitzen garenik ere, eta proiektu hau ez da baztandereendako bakarrik, eskualde guziraiko baizik. Hortaz, gure erronka orain eskualde guzian ezagutu gaitzatela da».

Kontsumismoari aurre eginez

Bigarren eskuko dendak geroz eta arrakastatsuegoak dira, hirietan batez ere, eta alde horretatik, «kontzientziatzen ari garela ematen du. Baina errealitatea da geroz eta kontsumistagoak garela, batzuk aldaketa bat egiten ari diren bitartean bertze batzuk inoiz baino gehiago kontsumitzen dutelako, hondakin gehiago sortuz eta lurrraren baliabideak xahutuz, gibeletik heldu diren nengan pentsatu gabe».

Ekonomia zirkularreko proiektuendako «baliabide guti» izaten dira, «eta landa eremuaz ari garelarik oraindik gutiago. Baina apustua egin dugu eta aitzinerat egiteko ilusio eta gogorik ez zaizkigu falta».

«Boluntariotzaren arima hartu-emanetan sustraitzen da»

IXIDRO HERGUEDAS SUKIA BIDELAGUN

Zer da Bidelagun?

Irabazi asmorik gabeko elkar-
tea da Bidelagun, duela 22 urte
Baztanen sortu zena. Bolun-
tariotza eta giza konpromisoa
ditugu helburu, eta hainbat
proiektu lantzen ditugu adin-
duen munduan eta etorkinen
arloan gehienbat. Era berean,
prest gaude hurbileko gizartean
ematen diren erronkei erantzun-
a emateko, proposamen eta
proiektu zehatzak lantzeko eta
martxan paratzeko.

Eta Lagun-Bide Zerbitzuak enpresa?

Elkarteko proiektu potoloena
da. 2013. urtean sortu zen,
zaugarritasun egoeran dauden
pertsonei, lanaren bitartez, bizi
duin bat izateko aukera emate-
ko. Gizarteratzeko enpresa
sortu nahi genuen, baina egoer-
a politikoarengatik eta gure
esperientzia faltagatik ez
genuen klasifikazio hori lortu.
Dena den, elkarrekin aitzinerat
pauso bat ematea erabaki zuen,
ausarta erran genezake, eta
orain ezagutzen dugun enpre-
sa martxan paratzea erabaki
genuen. Emausko Trapuketa-
riari esker gaude hemen. Haiek
diru kopuru bat aitzineratu
ziguten martxan paratzeko eta
beraien esperientzia erakutsi
ziguten. Gure bidelagunak dira
gaur egun.

Nola funtzionatzen du enpresak?

Proiektua, gaur egun, erabat
independentea da, autonomia,
eta bere lanetik bizi da. Sortzen
dituen etekin guziki enpresan
bertan gelditzen dira. Gure
eskualdean lanpostu berriak
sortzea eta proiektu sozialak
bultzatzea du helburu. Hau da
elkartearen filosofia, denborak
erakutsiko du. Orain, hurrengo

pausoa ofizialki gizarteratzeko
enpresako sailkapena lortzea
da. Eta bide horretan gabilta,
Gizarte Zerbitzukoekin harre-
manetan jarritz.

Koronabirusaren eragina nabaritu duzue?

Pandemiak ikaragarriko kolpea
eman dio elkarteari. Gure jar-
duera guzikiak bat-batean gel-
ditu egin ziren. Boluntariotza-
ren arima hartu-emanetan
sustraitzen da. Kontaktua,
hurbiltasuna, giza berotasuna,
ateraldiak, solasak... dena
bertan behera gelditu da orain
arte. Beldurra nagusitu da gure
bizietan.

Eta orain?

Piztu beharrean ikusten dugu
elkartea. Bidelagunen bigarren
sorrera beharrezkoa ikusten
dugu. Boluntariotza berriz bul-
tztatzea da erronka, irakurketa
berri bat eginez, proposamen
berriak aurkeztuz, konpromiso
berriak bilatuz; elkarrekin aur-
pegi berriez osatuz. Hilabete
hauetan kanpaina bat presta-
tuko dugu zentzu honetan.
Hortik aparte, badugu bertze
proiektu bat fite martxan para-
tuko duguna: behin-behineko
emergertziazko etxe bat Baz-
tanen. Udaleko talde politiko
guziei aurkeztu genien proiektu-
a eta dagoeneko hortan ari
gara.

Zertan datza proiektua?

'Bidenabarkoan' proiektuak
etxebizitza bat lortzeko zailta-
sunak dituztenei lagundu nahi
die, aldi baterako bizitokia

**«BOLUNTARIOTZA
BERRIZ
BULTZATZEA DA
GURE ERRONKA»**



eskainiz. Pertsona hauek hain-
bat ezaugarri izan ditzakete:
bertze herrialdeetatik etorriak
dira, familiarik kanporatuak
izan dira, egoera ekonomiko
eskasa dute edo behin-behi-
neko krisi egoeraren bat, emo-
zionalki, fisikoki, sozialki edo
ekonomikoki. Urtean 15 bat
laguni harrera egitea espero
dugu. Elizondon martxan egon
zen bi urtez horrelako proiektu
bat boluntario batzuen kon-
promisoari esker, eta orain
egoera soziala kaskartu denean
beharrezkoa ikusten dugu.

Pobrezia eta bazterkeria arazo sozialak dira. Erantzun soziala behar dute?

Behin, Iruñeko banku batean,
pintada bat idatzi zuten, eus-
karaz gainera; *Zertan ari zinen
ni sufritzen ari nintzen bitartean?*

**«BERTZEAREN
LARRUAZALEAN
JARRI BEHAR
DUGU»**

Hau da, nire ustez, geure burua-
ri egin behar diogun galdera
bizitzako hainbat eta hainbat
momentutan: karrikan norbait
botata ikusten dugunean, erant-
zuta desagoki edo mespretxu
bat aditzen dugunean, bakar-
dadean bizi den norbait edo
kanpotar bat ezagutzen dugu-
nean... Galdera horrek bizitzari
bertze zentzu bat eman
diezaioke. Denon erantzunak
solidarioa izan behar du, ber-
tzearen larruazalean jarri behar
dugu. Denok.

Sistema aldatzea posible ikusten duzu?

Sistema aldatzea? Amets bat.
Ikusi dugu pandemiarekin zer
pasatu den. Jendeak erraten
zuen bizitakoa pasatzean gau-
zak ez zirela berdinak izanen;
eskuzabalagoak izanen ginela,
aunitzez ere solidariogokoak...
Amesgaiztoa. Sistemak alda-
tu gaitu, eta hortan segitzen
dute. Atera kontuak.

Akitzeko, zerbait gehitu nahi duzu?

Bizi biziki bizia.

«Emakumeon arteko sare indartsua sortzea da premiazkoena»

IRATXE MUXIKA ETA GARAZI MIGELTORENA LESAKAKO XULUFRINAK SAREKO KIDEAK

Emakumeak saretzea. Horixe du helburua Lesakan sortu berri den Xulufriak Sare Feministak. Udazkenean sarea sortzeko lanetan ibili ondotik, negu betean loratu dira, eta dagoeneko hasi dira martxan. Oraingoz, martxoaren 8ko ekitaldiak antolatzen ari dira buru-belarri

A. LARRETxea

Xulufriak. Izen hori hartu du aurkeztu berri duten Lesakako Sare Feministak. «Matxismoaren erasoetatik irauenez, mehatxuen gaintetik tinko, taldean sortu eta loratu nahi dugu. Hemendik zabaltzen eta hangotik ikasten, Euskal Herriko mugimendu feministarekin bat eginez, hainbat lorez egindako mosaikoa landatzeko». Halaxe aurkeztu zuten taldea eta bere funtzioak Lesakan otsailaren 4an egindako aurkezpenean. Xulufriak, ordea, ez da ezerezetik sortu. Aitzinetik ere bazegoen Emakume Taldea Lesakan. Orain aitzineko sare horiek indartzea, herriko emakumeak saretzea eta borroka feministar urte guztira zabaltzea dute helburutzat. Hainbat adinetako emakumeek osatzen dute Xulufriak, eta tartean dira Garazi Migeltorena Mitxelena (Lesaka, 2002) eta Iratxe Muxika Karrion (Lesaka, 2002). Taldearen egungo asmoen eta etorkizuneko helburuen berri eman digute.

Lesakako Sare Feminista aurkeztu zenuten otsailaren 4an. Aurkezpenetik egun batzuk pasatu direnean egun horren ze balorazio egiten duzue?

Aurkezpena hagitz ongi joan zen. 25 bat lagun inguru elkartu ginen. Arranoko ganbara kolore morez argizatua, xulufriak loreak lurrean.... aurkezpen hagitz txukuna izan

zen. Gainera, jende berria gehitu zen sarera eta, hargatik, hagitz kontent gaude.

Nolakoa izan da sarearen sorrera prozesua?

Xulufriak sareko kide batzuk izan ziren lehenak mugitzen. Ikusi zuten, feminismoari dagokionez, Lesakan hutsune edo gabezia bat zegoela, eta beraz, horri konponbide bat bilatu behar zitzaioela. Aipatutakoa burutan, hiru bilera deitu zituzten, nondik heldu garen eta nora joan nahi genuen erabakitzeko. Bilera horietan sare bat osatzeko behar adina gogo zegoela ikusi genuen, eta horrelaxe sortu genuen Xulufriak.



Iratxe Muxika Karrion

«BEHARREZKOA DA OINARRIAN SARE EGONKOR BAT IZATEA.»

Sarearen bidez zer beharri erantzun nahi diozue?

Guretzat, oraingoz bederen, beharrik garrantzitsuena sarea osatzea bera da. Xulufriak babesgune gisa sentitzea ezinbertzekotzat dugu, eta, are gehiago, gainerako beharrei erantzunik eman nahi badiegu, oinarrian sare egonkor bat izatea beharrezkoa dela uste dugu.

Zein dira sare feministaren helburuak?

Behin sare egonkor bat sortu eta gero, Lesakan dauden beharrei erantzuten ahalegin-duko gara. Orain, sarean bertan zenbait gairen inguruko azpitaldeak egiten hastea dugu



Garazi Migeltorena Mitxelena

«HAGITZ ONGI ETORRIA DA PARTE HARTU NAHI DUEN ORO»

burutan, eta horrek berak egitekoak zehaztuko dizkigu.

Xulufriak paratu diozue izena. Zergatik izen hori?

Xulufriak lore more eta indartsuak dira, beti taldean loratzen direnak eta leku hagitz gutxitan aurki daitezkeenak. Alabaina, Lesaka eta Bera arteko muga horretan badago horiek ikusterik, desagertzeko arriskuan dauden arren. Xulufriak, gainera, soro bat erre ondotik ateratzen diren lehenengo loreak dira, edo lehenengotarikoak, behintzat. Horregatik, sinbolikoki eta metaforikoki duen erranahia-gatik, Xulufriak izena jarri genion.

Aurkezpenean zuen logoa ere zabaldu zenuten. Zer erakutsi nahi izan duzue irudi horren bidez?

Logoak ere berezia behar zuen. Oinarrian hiruki bat dago, alde batetik Lesakako plazaren adierazle izan dena, eta, bertetik, mugimendu feministarena, noski. Naziek, gainera, hiruki beltza, hiruki inbertitua, «emakume asozialei», balore naziei aurka egiten zieten emakumei jartzen zieten. Azkenik, hirukiak ezkerrean bertze marrazko bat ere badu, sarearen ezkerrean zoko norabidea nabarmentzeko.

Zeinek osatzen duzue taldea gaur egun?

Xulufriak sarea talde motore batek eta gainerako parte hartzaileek osatzen dute. Bada jendea konpromiso bat hartu duena sare honen jarraipenerako, eta beraz maiztasunez bilduko dena. Eta, bertaldez, bada jendea pixka bat urrunagotik laguntzen duena, eta biak dira beharrezkoak aitzinera egin nahi badugu.

Nork parte hartu dezake?

Sare ez mistoa dela hartuz abiapuntu, atekak irekiak daude hurbildu nahi duen guztientzat; eta hagitz ongi etorria izan da interesa duen oro!

Hemendik aitzinera nolakoa izanen da zuen eguneroko funtzio-



Otsailaren 4an egin zuten aurkezpena Lesakako Arrano ostatuko ganbaran, eta adin guztietako 25 bat emakume bildu ziren.

namendua? Nola antolatuko zarete?

Larunbat goizetan biltzen gara, bi edo hiru astez behin Arranoko ganbaran, egitekoaren arabera eguna aldatzen ahal den arren. Bilerak hausnartzeko eta ideia berriak sortzeko erabiltzen ditugu.

Zein dinamika paratu nahi dituzue martxan?

Oraindik martxa hartzen ari gara, eta, beraz, ideia batzuk burutan ditugun arren oraindik ez ditugu denak mahai gainera ekarri. Gaur gaurkoz, martxoaren 8a ate joka dugunez, horri begira ari gara lanean.

Xulufriak ez da eskualdeko talde feminista bakarra. Nolako harremana duzue gainerako emakume talde feministekin?

Oraindik hasi berriak gara, baina elkarlanean aritu nahiko genuke, bai. Momentuz, orain artekoak egiteko, inguruko zenbait talde feminista hartu ditugu kontutan, Bera-ko Goldatz Talde Feminista

eta Baztango Iñarrosi, errate baterako

Sarea sortu berri duzuela, zein da egun Lesakan berdintasunari dagokionez aurkitu duzuen egoera?

Egungo egoera aitzineko emakume taldea sortu zenean zegoena baino hobea da, baina oraindik hobetzeko bidean gaude, eta egiteko aunitz dago, noski. Premiazkoena emaku-

meon arteko sare indartsu bat sortzea da, ahizpatasuna izaneren duena oinarri.


Bi aste pasatxo gelditzen dira martxoaren 8rako. Nolako presentzia izango du Xulufriak Sare Feministak egun seinalatu horretan?

Oraindik eguna prestatzen ari gara, baina, aipatu bezala, eskualdeko eragile feministekin elkarlanean ariko gara antolaketa lanean. Egunean bertan zein aitzineko egunetan hainbat ekintza gauzatuko ditugu: mendi buelta, manifestazioa...

Zergatik da garrantzitsua martxoak 8a bezalako egunak aldarrikatzea?

Emakume bezala pairatu ditugun zapalkuntza guztiak aldarrikatzeko egun bereziak dira, eta guztion artean ekintza ikusgarriak egiteko baliatzen ditugu. Borroka urte osokoa bada ere, urteroko egun seinalatu hauek ospatzeak indartu egiten gaitu, bai sare eta bai talde modura.

XULUFRINAK Lesakako Sare Feminista



Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Eguraldi ona egingen al du? ≠ Eguraldi ona egingen ahal du!

Ahal eta al bi hitz dira.

Al bai/ez erako galderak egiteko aditzaren ezkerrean (edo laguntzailearen ezkerrean hura konposatua bada) paratzen den partikula da:

- Gaixo al zaude? (***Gaixo ahal zaude?**)
- Egin al dezakegu hori? (***Egin ahal dezakegu hori?**)
- Ez al dira nekatu?

Edo zehar-galderetan:

- Galdetu zion ea euskaraz ba al zekien.

Ahal, berriz, hiru gauza izan daiteke:

1. *ahal* izan aditza:

- Ahal baduzu, egizu (***Al baduzu, egizu**).

2. partikula modala, desira adierazten duena.

- Egingen ahal du!
- Ez ahal da eroriko!

3. izena, ahalmen eta indar hitzen sinonimo.

- Agertu zuen bere ahala eta indarra.

Nola erran



gain ≠ goi

Euskaltzaindiak dioten bezala, *gainek* eta *goik*, «biek edozein gauzatan, lurretik urrunen dagoen aldea» adierazten dute, baina ez dira baliokideak.

gainen antonimoa *azpi* da, eta *goirena*, *behe*. Hona hemen adibide batzuk:

Gain:

- Zubi zaharraren gainetik pasatzean.
- Azpian lur hotza, gainean harria.

Goi:


- Goi urdinari so.
- Etxearen goiko leihoan.

Erreparatu azken adibide honi:

- Goiko eta beheko bizilagunak (***ez gaineko eta azpiko bizilagunak**).

Hieroglifikoak

Bere azken tantoak buruan...



-H

BENGO TA

Eta zuk zer diozu?


Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61




2022 • 2023

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO AURREINSKRIPZIOAK

MARTXOAREN

7tik 11ra



NI PUBLIKOKOAN NAIZ SORTU NAHI DUZUN ESCOLA

• HURBILA

Etetik bertara eta doako eskola-garraio segurua bermatuta. Hurbiltasunean heziz. Eta osasuna zainduz menu osasungarriekin eta bertako produktu freskoekin.



• TEKNOLOGIKOA ETA IKERTZAILEA

Heziketa digitala baliabide guztiekin —32.000 chromebook eta tablet baino gehiago eskuragarri ikasleentzat— etorkizunera begiratzen duena saiakuntzen bidez —robotika, ikerketako eta nazioarteko batxilergoak— STEM bokazioak sustatuko dituzten metodologia aktibo berrien bidez ikasteko.



• BIKAINA ETA ERABATEKOA

Etapa guztietan zure seme-alabekin batera hazten den heziketa malgua. Irakaslerik onenak dituen —estatuko irakasle-ikasle ratorik onena 1.000 ikasleko 110 irakaslerekin—, funtsezko gaitasunen ikaskuntza xede dutenak, curriculum-ikuspegi malgu eta deszentralizatuarekin eta hezkuntza-programa aitzindariekin.



• ELEANITZA

Edozein hizkuntzatan ikasteko aukera ematen duena —programa eta eredu lebidunak eta hirueledunak (gaztelania, euskara, ingelesa, frantsesa, alemana)—.



• INKLUSIBOA ETA ANITZA

Inor kanpoan uzten ez duena. Haurren eskubideak eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak integratzen dituen —Enclave ikasgelak—. Skolaerekin berdintasunean hezten duena —mundu osoan saritu den hezkidetzeta programa—. Guztiok berdinak eta aldi berean ezberdinak egiten gaituena.



• ERALDATZAILEA

Ikaskuntza kooperatiboan oinarritutako heziketa —80 ikastetxe Proeducar-Hezigarri programan lan egiten—. Hezkuntza-sistema publikoa eraldatzen duen sarea, non zuk eskola eraiki eta etengabeko ikaskuntza-komunitatea sortzen duzun.



Argibideak eta eskaerak aurreinskripzioa.nafarroa.eus

Aldaketak ordutegi mugatuko aparkalekuetan

Aparkatzeko denbora ordubetera luzatu eta ordutegia egokitu dute: 09:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara

AINHOA LARRETXEAGA IRRE

Urtebete bete zen urtarrilean udalak herriko hainbat aparkalekutan aldaketak egin zituenetik. Bi motatako aparkalekuak ezarri zituzten orduan: herritarrentzako aparkalekuak Toki Ona pareko aparkalekuan, eta ordutegi mugatuko aparkalekuak Altxatan, Mukixun eta Kanttonberrin.

Plaza horiek sortu zirenetik urtebete pasata, eta erabiltzaileekin mintzatu ondotik, hainbat aldaketa egin ditu udalak plaza horien erabilpenari dagokionez. Hemendik aitzinera, ordu erdi beharrean ordubetera denbora tartea izanen da aparkatzeko eta, gainera, plaza horien ordutegia ere denden ordutegira moldatu dute: astelehenetik ortziralerara 09:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan eta jai ez diren larunbatetan 09:00etatik 13:00etara. Gainerako ordutegian libre izanen da plaza horietan aparkatzea.

Plaza horiek edozeinek erabili ditzake, baina, ordubetera denbora mugarekin, eta



Autoan ordu-diskoa paratu behar da.

erabiltzeko aski da inguruko komertzio batean ordu-diskoa eskatu, aparkatutako ordua zehaztu, eta hori haizetakoan ikusgarri paratzea.

Bertakoentzako aparkalekuak
Marra berdeak dituzten aparkalekuen kasuan ez da erabiltzeko baldintzarik aldatu, baina, derrigorrezkoa izanen da 2022-2023ko txartela izatea. Txartel hori ez dutenen kasuan, isuna jaso dezakete plaza berdeetako batean aparkatuz gero. Txartel berria udal bulegoetan lortu daiteke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Erdozain bigarren Kobaz Koba Trailen

Zestoan otsailaren 13an jokaturako Kobaz Koba Trail lasterketan bigarren postua lortu zuen Gure Txokoako Ibon Erdozainek 15 kilometroko proban 1.10.04ko denbora eginda. Proba berean Ane Eltzaurdiak laugarren postua eskuratu zuen 1.32.41ko denbora eginda. Zorionak bie!

Euskal Herriko Txistu Eguna ospatuko dute martxoaren 5ean

A. LARRETXEAGA IRRE

Bi urtez gibelatu ondotik, martxoaren 5ean ospatuko dute Euskal Herriko Txistu Eguna. Txistua aitzaki, egun osorako egitaraua antolatu du Euskal Herriko Txistulari Elkarteak, eta dozenaka txistulari elkartuko dira Beran.

Martxoko lehen larunbatean, 09:15ean goiz deia egingen dute Altxateko plazatik abiatuta. Ondotik, 10:00etan Euskal Herriko Txistu Elkartearen batzarra egingen dute. Handik Josu Goia zenaren etxera joanen dira, eta *Ai, hori begi ede-*

rra abestia interpretatuko dute 12:30ean bere etxeko atarian. 13:00etan kontzertua eskainiko dute Herriko Etxeko plazan Gure Txokoa dantza taldeko kideekin batera. Ondotik, 14:30ean bazkaria izanen dute.

Martxoaren 5ekoa ez da txistulariek Beran eskainiko duten emanaldi bakarra izanen. Martxoaren 9an, asteazkena, Donostiako Udalaren Txistulari Taldeak emanaldia eskainiko du Kultur Etxean musika eskolako txistularien, eta Gure Txokoa Dantza Taldeko dantzarien laguntzarekin.

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 · Altxate, 17 · BERA

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus



ARANBARRI
INMOBILIARIA · BERA



Arkaitz Korta
Itziar Elias

HURBILTASUNA, INPLIKAZIOA ETA LASAITASUNA

Zerbitzu osoko inmobiliaria gara, zure beharrak, ametsak eta kezak hasieratik amaierara hurbiltasunez entzun eta konponduko ditugu. Bizitzan hartuko duzun erabaki garrantzitsuena lasaitasunez hartu dezazun.

Bide honetan lagundu nahi zaitugu, hasieratik zure etxeko giltzak eskuratu arte edo zure etxea izan dena esku onetan utzi arte.



Prozesu honetan zure bidelagun izan nahi dut, zure beharrak ezagutu eta ulertu. Elkarrekin eginen dugu bidea?

ITZIAR ELIAS



Urtetako esperientzia dut sektorean, ezezagunak suertatu ahal zaizkizun tramiteez arduratuko naiz; negoziaketak, notariotza, agiriak,...

ARKAITZ KORTA

Itziar Elias

699 966 236
itziar@aranbarri.com

Arkaitz Korta

645 707 340
arkaitz@aranbarri.com



www.aranbarri.com
Bera · Azkoitia



Inudeak eta Artzainak dantzan 2019ko inauterietan. UTZITAKOIA

Inauteriak ospatuko dituzte heldu den asteburuan

Igandean Inudeak eta Artzainak aterako dira dantzan, eta astelehenean mozorro eta karrozen txanda izanen da

AIHNHOO LARRETXEAA AGIRRE

Iazko inauteriak bertan behera gelditu ondotik, aurten ohi-ko egitaraurik gabe, baina, inauteriak ospatuko dituzte Beran. Erdizkako inauteriak izanen dira Kaldererorik eta ortzegun gizenik izanen ez delako. Gauzak horrela, igandean eta astelehenean bakarrik aterako dira mozorroak.

Otsailak 27, igandea, Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, Inudeak eta Artzainen konpartsak alaituko ditu karrikak. 10:00etan abiatuko dira Eztegarra Frontoitik eta herri osoan barrena ibiliko dira. Aurten

lehenengoz musika jotzen, dantzan edo konpartsan ateratzeko ezinbertzekoa da izena ematea —otsailaren 20an bukatu zen epea—. Entseguak otsailaren 22an, asteartea, 20:00etan eta 25ean, ortziralea, 19:30ean izanen dira Eztegarra Frontoian, eta bertan egonen dira salgai bazkariko txartelak 17,5 euroan.

Astelehenean izanen du segida bestak. Goizean zingar arrautze eskea izanen da, eta eguerditik aitzinera mozorroak eta karrozak ibiliko dira karrikan. Arratsaldean musika emanaldia izanen da.



Toki Ona Institutuko patioko estalpe berria. TTAPI TTAPA

Ireki dute Toki Ona Institutuko patioko estalpe berria

TTAPI-TTAPA

Azaroan hasi zituzten lanak, eta otsailaren 7tik aitzinera erabilgarri dago Toki Ona Institutuko patioko estalpea. Orain artean institutuak ez zuen inolako estalperik ikasleak atsedendietan egoteko, eta gabezia hori betetzea zen lanen helburua. Institututik eskerrak

eman dizkiete bai Udalari zein Nafarroako Gobernuari ere.

Estalpeak Toki Onari emanen dio zerbitzua eskola-ordutegian, eta udalak komenigarritzat jotzen duen ordutegian, berriz, Berako herriak erabiliko du aisialdirako, kirola egiteko, edota bertzelako jarduerak egiteko.

EH Bilduren batzarra otsailaren 24an Beralandetan

AIHNHOO LARRETXEAA AGIRRE

Berako EH Bilduk bilera irekia deitu du, «agintaldian orain arte egindakoa errepasatu eta ondorengo urte eta erdian ditugun erronkei buruz solastatzeko». Gainera, zinegotzi berri bat aukeratu behar dute eta hori ere landuko dute. Udal

taldeak adierazi duenez, «helburua jendea elkartu eta lasai ederrean solastatzea da».

Beratar guzietatik irekita egonen den hausnarketa saioa izanen da, hortaz, beratarrak bertaratzerara deitu dituzte otsailaren 24an 19:00etan Beralandetan eginen den bilerara.

LABEZAR
Asteleheneetik ortziralerara: 07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

ANTZUZELAI S.L.
BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Ansona ostatu · jatetxea
T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 • BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Fisioterapia espezializatuak bereizten gaitu»

BEGO VIELA URTASUN
BIDAIDE FISIOTERAPIA - ELIZONDO

2021eko maiatzean ireki zuten Bego Vielak eta Rafa Alzatek Elizondon Bidaide fisioterapia eta osteopatia zentroa. Vielak bazuen bere zentroa lehena-gotik, «baina orain apartamentutik bajera batera mugitu gara eta aldaketa arras positiboa izan da, lokal propioa dugu eta kanpotik ikusten gaituzte». Fisioterapia eta osteopatia orokorreko zerbitzuak eskaintzen dituzte, «baina espezializazioak bereizten gaitu». Alzatek haurrak lantzen ditu, «sortuberriek izan dezaketen edozein arazo, eta hiru urteak arte arnasketaren inguruko fisioterapia ere egiten du». Viela, berriz, emakumeen fisioterapia espezializatu da, «haurdunaldian, edota edozein arazo uroginekologikotan, adibidez». Honez gain, taldeko saioak egiten dituzte ariketak egiteko.



«Udaberriarekin batera jendeak loreak erosten ditu»

JOSUNE URROZ TELLETXEA
ZU LORE-DENDA - BERA

2015ean ireki zuen Josune Urrozek Zu lore-denda Beran. «Formazioz dekoratzailea naiz eta bere garaian paisajismoa egin nuen, lore-denda irekitzea erabaki nuen». Landareentzako eta dekoraziorako osagarriak saltzen ditu bertan, «baina landareak eta lore moztuak gehienbat». Salmentek «goi-denboraldiak eta behe-denboraldiak» izaten dituzte, «urtero errepikatzen direnak; martxotik ekainera bitarte, kanpoko landareak saltzen hasten gara eta udaberriarekin batera jendea mugitzen hasten da, gainera amaren eguna eta ezkontzak hasten dira orduan». Uda «epe motelena» da, «eta urrian hamabostaldi indartsua izaten da». Eguberrietan «mugimendua nabari da». «Oinarrizko aholkularitza» ere eskaintzen du, «baina landareen zainketa hagitz erlatiboa da, baldintzen arabera».



«Herri euskaldun ttiki bat nahi nuen optika irekitzeko»

BEA ARTOLA FERRAN
OSTARGI OPTIKA - BERA

1996an ireki zuen Bea Artola Irundarrak Ostargi optika Beran. Optika eta Optometria ikasi zuen unibertsitatean eta hainbat herritan ibili zen lanean. Duela 26 urte erabakia hartu zuen; «herri ttiki euskaldun bat nahi nuen optika irekitzeko, eta Irundik hurbil dagoenez Berara etorri nintzen». Ikusmenaren azterketa orokorra egiten dute; «graduazioak, lentillak, segurtasun betaurrekoak, eguzkitako betaurrekoak... ikusmenaren zaintzarekin zerikusia duen guztia». Honez gain, «audiologia protesikoko goi mailako zikloa egin nuen eta audiometriako kabinetea muntatu nahiko nuke, baina hagitz zaila da espazio faltagatik. Pena ematen dit zerbitzu inportante izanen litzatekeelako, baina oraingoz ez dut modurik».



«Mota guztietako terapia naturalak egiten ditugu»

ITXASO MENDIZABAL ALLIKA
TAUPADA ZENTROA - DONEZTEBE

«Terapia zentro bat» da Doneztebeko Taupada, Itxaso Mendizabalek duela bi urte ireki zuena; «12 urtez hainbat zentrotan ibili nintzen lanean eta jende aunitzek ezagutzen ninduen nire zentroa irekitzea erabaki nuen». Hainbat terapeutak egiten dute bertan lan eta «terapia mota aunitz» egiten dituzte zentroan; «Metabolic balance dietak, biomagnetismoa, txinatar medikuntza, masajeak, depilazio biologikoak, reikia, umeentzako terapiak, estetika naturala, homeopatia... dena naturala». Eskualde osoko jendea joaten da zentrorra eta web orria edukitzeak «aunitz lagundu duela» aitortu du Mendizabalek, «ez nuen uste hain baliagarria zenik, baina lagun batek egin zidan web orria eta egia da leku aunitzetara ailegatzen dela».





Beran 2020ko martxoaren 8an elkartu ziren emakumeak. UTZITAKO ARGAZKIA

Martxoaren 8rako egitaraua antolatu du Goldatzek

Aurten Beran izanen da eskualdeko ekitaldi nagusia martxoaren 6an, igandean

TTIPI TTAPA

Gero eta hurbilago da Martxoaren 8a, eta egun hori kari hainbat ekitaldi antolatu ditu Goldatz Berako Talde Feministak. Martxoaren 8a asteartea izaki, igandean, martxoaren 6an egingo dute eskualdeko ekitaldi nagusia Beran eskualdeko bertze talde feministekin elkarlanean. Goizean hainbat ekintza egingen dituzte eta arratsaldean manifestazioa izanen da Berako karriketan.

Igandearen aitzinetik, larunbatean, martxoaren 5ean, bertso poteo feminista egingen

dute herriko ostatueta, eta martxoaren 8an, asteartea, aldarrikapen kalejira egingen dute. Gainera, asteburuan herria morez apaintzeko deia ere egin du Goldatzek.

Mendi itzulia

Goldatzek antolatutakoa ez da Beran egingen duten ekitaldi bakarra izanen. Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak XII. Bortzirietako Emakumearen Mendi Martxa antolatu du martxoaren 6an. 09:00etan Toki Onatik abiatu eta hiru orduko ibilaldia egingen dute.

LESAKA

Organo, soprano eta tronpeta kontzertua martxoaren 5ean

Lesakako Roques Organoaren Lagunen Elkarteak antolatu du eta iaz 20.165 euroko dohaintzak jaso zituen

AITOR AROTZENA

Lesakako Roques Organoaren Lagunen Elkarteak (AAORL), Udalaren laguntzarekin, 2022rako aurreikusita dituen kontzertuetako lehena antolatu du. Oraingo honetan, kontzertuaren formatua organo, soprano eta tronpetera izanen da eta datorren martxoaren 5ean, larunbatean 18:00etan hasita izanen da Lesakako San Martin elizan.

Maria Martinek (sopranoa), Iñigo Oconek (tronpeta) eta Gerardo Rifonek (organoa) egitarau zabala aurkeztuko dute. Musika barrokitik hasita, Erromantizismotik pasatuz, musika unibertsal garai-kidera eta euskal musikara (Guridi, X. Lete eta B. Lertxundi) eta errepertorio lirikoko obra aski ezagunak eskainiko dituzte.

Laburbilduz, kontzertua hainbat garai eta musika estilotan zehar egindako bidaia da. Musika sakratutik hasi eta euskal opera eta kanturantz abiatuko da. Helburua ahotsaren, organoaren eta tronpeteraren aukerak erakustea da.

Kontzertua AAORL elkarteak Lesakako kultura, gizarte eta prestakuntza bizitzan organoa elementu aktiboa izan dadin egiten dituen ekintzen barrenean dago.

20.165 euroko dohaintzak iaz AAORL pozik dago 2021eko MECNA kanpainen egindako ekarpen ekonomikoekin; «kanpaina horri esker 83 partikularren eta 3 enpresaren ekarpenak lortu ditugu, guztira 20.165 euroko dohaintzetan. Elkartetik lankidetzari hori eskertu nahi dugu, hagitza lagun-garria izanen baita egin nahi ditugun Roques organoa kontzertuetarako eta balioesteko lanetarako». Zehazki, 2022rako duten helburuetako bat organoa zaharbertzarako lehen fasearekin hastea da.

2022an berriro lortu dute gizarte-intereseko aitortpena, eta berriro ere partikularrak eta enpresak animatu nahi dituzte MECNaren bidez dohaintza egin dezaten 2022ko abenduaren 31 baino lehen, dagozkien zerga-abantailak jaso ditzaten.

Lehen jaunartze eguna

Menu ezberdinak

Bazkal ondoren haurrek jolastu, dantzatu eta ongi pasatzeko espazio berezia dugu. Eguraldiak ez badu laguntzen egokitutako leku estalia dugu.



ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

KONTSULTATU GURE ESKAINTZAK



Berrikuntzekin datoz aurten inauteriak

Ohiko ospakizunekin batera, ortziralearan haurrentzako ekitaldiak eta larunbatean rock kalejira izanen dira

AITOR AROTZENA

Joan den urteko geldialdiaren ondotik berriz ere inauteriak ospatzeko modua izanen da aurten. Egitaraua ohiko inauterietara hurbilduko da, baina izanen dira berrikuntzak ere.

Ortzegun Gizen egunean, ohiko arrautze arrautze eskea egingen dute haur eta gazte-txoek.

Ortziralearan ez da ekitaldi handirik izaten normalean, baina aurten 16:00etatik 20:00etara haurrentzako ekitaldiak antolatuta dituzte Plaza Zaharrean: mairu zapel, maskara eta apaintze tailerrak, alde batetik eta ginkana. Txokolata beroa ere izanen da.

Larunbatean, 19:00etatik 21:00etara *Rock Kalean* ibiliko da karrikaz karrika. Rock doinuak aditzeko aukera izanen da kalejira berezi honetan.

Igandean, 17:00etan zako-zahar ttikiak trikitalariekin ibiliko dira eta ilunabarrean zako-zahar eta mairuak herriko musika bandarekin. Hain zuzen, inauterietako igandean bandarekin jotzeko deia egin die nahi duten musikari guziei.



Zako-zaharrak musika bandarekin.

Ateak zabalik dituztela azpimarratu dute eta musika eskolako ikasle batzuk ere parte hartzekotan dira. Horretarako aski da musika bandako norbaitekin harremanetan jartzea. Arratsaldean Plaza Zaharrean Trikidantz taldearekin musika izanen da.

Astelehenean moztorroak eta orgak ikusgai izanen dira plaza inguruan eta arratsaldean musika izanen da Plaza Zaharrean.

Aipatzekoa da Fraindarrak taldekoak ez direla baserrietan ibiliko aurten. Astelehenean barkarrik herrian ibiliko direla erabaki dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Osasun Bidasoak deituta elkarretaratzea

Osasun Bidasoak Plataformak deituta elkarretaratzea egin zen plazan otsailaren 12an. *Gure osasunaren alde, SOS Kirofanoak handitu, berritu, hobetu* zioen pankartaren eta Bidasoak Ospitaleko langileek hedatu zuten bertze baten gibelean hainbat lagun bildu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lizarra eta Lesakako trial topaketa

Lesaka eta Lizarrako trial pilotuen topaketa eta erakustaldia egin zuten skate parkean otsailaren 12an. Hainbat haur eta gazte ibili ziren, saltoka eta ariketa zailak egiten. Batzuk lehendik trebatutakoak, baina berritik probatu nahi zutenek ere izan zuten bere aukera.



Magala

LESAKAKO UDAL HUR ESKOLA

2022ko irailean hasiera emanen diogu ikasturte berriari




BISITAK

*Magala haur eskola bisitatu nahi baduzu, bidali mezu bat magalalesaka@gmail.com helbidera zuten telefono zenbakia, haurren izena eta adina zehaztuz, eta zuekin kontaktuan jarriko gara hitzordua zehazteko.

AURREMATRIKULAZIOA

Martxoaren 1etik 15era, Lesakako udalan

*2021eko maiatzaren 12ra arte jaiotze behar diren haurrek egin dezakete aurrematrikulazioa.

Edozein zalantza izanez gero, jarri gurekin harremanetan magalalesaka@gmail.com-en edo **688 77 45 30** telefono zenbakian.

Inauterietako egitaraua normaltasunerantz

Ortzegun Gizenarekin hasi eta Astearte Inaute egunean bukatuko dira ospakizunak

IRUNE ELIZAGOIEN

Joan den urteko geldialdiaren ondotik, 2022ko inauteriak bere ohiko ekitaldietara geruratuko dira Etxalarren.

Otsailaren 24an, Ortzegun gizenarekin hasiko dituzte inauteriak herritarrek. Eskolan ezarritako kontingentzia plana betez, pasa den urteko egituraketa errepikatuko dute Landagain eskolako ikasleek aurten ere. Eguneroko ordutegia mantenduz egingen dituzte jarduerak. Nahi duenak goizean *Ortzegun gizen* kantatuz eskean ibiltzeko aukera izanen du, eta ondotik 11:30ak aldean eskolaratu. 12:00ak aldean herrian bertsoak eta dantzakeginen dituzte zenbait txokotan: Gurutzean, Beko-Landan, Maixternean eta plazan. Etxalar landa eremuan kokatutako herria izanik, aurten lehenengo sektorearekin lotutako mozorroak ikusiko dira.

Otsailaren 27an, igandea, Zaldun inaute eguna, kinto bestak ospatuko dituzte.

Otsailaren 28an, astelehena, inaute-inaute eguna, herriko



Aurten bai izanen dira mozorroak.

gazteak, baiezkoa eman duten baserrietan ibiliko dira eskean.

Martxoaren leian, astearte, mozorro eta karrozen eguna izanen da. 12:00etan plazan elkartu eta herriari itzulia emanen zaio karroza eta mozorroekin. Herriko gazteen eskutik pintxoak banatuko dira. Eguerdian gazteek bazkaria izanen dute Herriko Ostatuan. Jubilatuen elkarteok aurten ez dute bazkaririk izanen.




IRUNE ELIZAGOIEN

Herriko Ostatu mus tximista

Hamalau bikotek hartu zuten parte Herriko Ostatu mus tximista txapelketan otsailaren 12an. Txapeldunak Mattin Zelaieta eta Benantxio Elizagoien izan ziren eta bigarrenak, berriz, Aitor Telletxea eta Joseba Aranburu izan ziren. Sari ederrak eraman zituzten finala jokatu zuten bi bikoteek.

Etxalarko Korrika Batzordea lanean hasia da

Aurten korrika Etxalartik pasako ez bada ere, herritarrek Lesaka eta Igantzi aldeko kilometroetan lasterka egiteko aukera izanen dute. Apirilaren 9an, larunbat goizean sartuko da Korrika Bortzirietan Sunbillatik eta Igantzi (05:07), Lesaka (05:40) eta Bera (06:17) zeharkatuko ditu eta Ibardinen barna Lapurdin sartuko da. Kilometroak erosteko aukera zabalik dago, baita Korrikako materiala eskuratzeko ere (petoak eta pinak). Interesa duena Beñat Irazokirekin paratu daiteke harremanetan.



Lasterka egiteko aukera izanen da.

caser residencial
www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako dementsiak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Arduro
arropa-denda
etxeko osagarriak | lenteria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136


744 484 361
ttipi-ttapa


USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214 M. 605 631 244
ETXALAR



Bortziritako eskola publikoak

Ricardo Baroja IP (Bera)
Landagain IP (Ebalzar)
Irain IP (Lesaka)
Toki Ona BHI (Bera)
Arantza IP
Igantzi IP

Aurrematrikula Martxoaren 7tik 11ra




BIDEOA >>
<< WEB



Euskalduna Doakoa Kalitatezkoa

Jantoki eta garraio zerbitzua, bertan egindako janaria

Toki Ona BHI



Lesakako Irain Eskola



Etxalarko Landagain



Diru laguntzak jasotzeko aukera

Inklusiboa, orientazio psikopedagogikoa

Ingelesa eta frantsesa

Berako Ricardo Baroja



Irteerak eta jarduerak osagarriak

Arantzako Herri Eskola



Igantziko Eskola



Ikasle bat, chromebook bat

2 urtetik 20 urtera arteko hezkuntza jarraian eta elkarlanean



Igantzi, Etxalar eta Arantzako herri eskolak

Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua
Gobierno de Navarra Departamento de Educación



Petti, Estitxu eta Sustrai Colina, Guztiok taldeko haurrekin. UTZITAKOA

'Guztionzat' abestia kaleratu du Bortziritako Guztiok Taldeak

TTIPI-TTAPA

Bizipoza elkartearen *Mundu berri bat guztiontzat* ekimenaren barrenean, Bortziritako Guztiok elkarteak *Guztiontzat* abestia karrikaratu du. Sustrai Colina bertsolariak egin du kantaren letra, eta Berako Petti eta Estitxu Pinatxo abeslariak kantatu dute. Bideoklipa ere egin dute eta

bertan Guztiok Elkarteko haur eta gurasoez gain, Iturengo joaldunek ere parte hartu dute.

Behar bereziak edota une jakin batean behar berezi bat duten Bortziritako umeen beharrak asetzeko asmoz sortutako elkarte da Guztiok. Abestiarekin batera, lagundu nahi duen orori bazkide egiteko gonbidapena luzatu diote.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Zuhaitzaren eguna Frainen

Otsailaren 10ean zuhaitzaren eguna ospatu zuten eskolako lagunek. Aitzurrak hartuta eskolako zaharrenek oinez egin zuten Frainerako bidea, eta Haur Hezkuntzakoak kotxez joan ziren. Lanean hasi aitzinetik, indarrak hartzeko, guraso elkarteak hamaiketakoa banatu zuen.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa - Euskal Sagardoa
- Sagardo ekologikoa
- Sagardotegiko menua
- Asteartetik larunbatera afariak, larunbat eta igandeetan bazkariak

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

ZOANSA

VW SEAT AUDI HYUNDAI

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA

T. 948 62 55 55 | zoansa@zoansa.com
Banarta, 2 | Alkaiaga Ind. | LESAKA (Nafarroa)

Ortzegun honetan eskolako ikasleak etxez etxe

Otsailaren 18an eta 19an inauteriak ospatzekoak genituen herrian. Guraso elkarteak hainbat ekitaldi antolatuak zituen: haurrentzako jokoak, merienda, musika, herri bazkaria... Mozorroak ere etxez etxe ibiltzekoak ziren inauterietako giroa txoko guztietara eramanez. Ortzegun gizen egunean, berriz, eskolako ikasleak izanen dira, mairuz jauntzita, etxez etxe ibiliko direnak. 09:00etan abiatuko dira eta arratsaldean berendua izanen dute guraso elkartearen eskutik. Xehetasun gehiago hurrengo aldizkarian.

Mus eta partxis txapelketako finalak larunbatean

Biltoki elkarteak antolatutako mus eta partxis txapelketei asteburu honetan emanen diete akabaila. Larunbatean, otsailaren 26an, mus eta partxis txapelketetan parte hartu duten guztiek afaria izanen dute elkartearen, eta finala ere egun horretan jokatu dute. Lerro hauek idazterakoan oraindik ez genekien nortzuk jokatu dute azken lehia, baina edozein direla ere, zorte on guztie! Lagunartean mahaiaren bueltan elkartu eta ongi pasatzeko aukera ederra izanen da.

lazko geldialdiaren ondotik itzuli dira inauteriak

Herritarrek egitarauaren gehientsuena berreskuratu dute aurtengo inauterietan

NEREA ALZURI

Duela bi urte egin ziren honddarrek aldiz. Iaz osasun egoeragatik alde batera gelditu ziren, baina aurten, otsailaren 10etik 12ra eta, egungo egoerara egokituz, inauterietako egitarauaren gehientsuena berreskuratu da. Guztira 36 Mozorro Zuri ibili dira antolaketa lanetan.

Ortzegun goizean abiatu ziren inauteriak. Altxaferoak bota eta gosaldia ondotik, Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilarien laguntzarekin, eskolako ikasle eta irakasleekin elkartu ziren plazan eta dantza saioa egin zuten. Mozorro Zurien taldea bitan banatu eta talde bakoitzak bina auzo egiteko bidea hartu zuten, eta eskolako ikasleak herri kiroletan aritu ziren.

Ortziralean, eskolako Mozorro Zuri gaztetxoek ere *puxka-puxka* ibili ziren: laugarren mailatik goitikoak baserrietan eta lehenbiziko mailatik hirugarren mailara bitartekoak herrian barna.

Mozorro Zuriak, berriz, herriko etxeetan egin zuten eskea. Arratsaldean Josu Sanjurjo eta

Xabat Illarregi bertsolariekin poteoa izan zen eta arratsean, eguna baserrietan pasatu zuten mozorro ttikiek ongietorri beroa hartu zuten Mozorro Zuri eta herritarren eskutik. Eguna borobiltzeko, Belfast taldearekin dantzaldia izan zen.

Larunbatean, eskolako haur kozkorrenak Eguzkialdean *puxka-puxka* ibili ziren bi taldetan banatuta. Goiko Karrikan ere, giro ederra zegoen eguerdian... Herriko kuadrillak mozorrotuta elkartu ziren eta ederki girotu zen bazkal aitzineko tartea. Herritarrek, eguraldi zoragarria lagun, tarte goxoa pasatu zuten

Arratsaldean, mozorro kalejira izan zen herrian eta ondotik, herri kirol erakustaldi ederra egin zuten Mozorro Zuriek frontoian. Mozorro Beltzak ere agertu ziren, inguruak ederki harrotuz. Herri kirol saioaren ondotik, Mozorro Zuriek zozketa egin zuten, eta sariak Julen Oteiza eta Jaione Bergararentzat izan ziren. Larunbata eta inauterietan akabaila emateko, dantzaldia izan zen Mikel Salaberri musikariarekin.



Mozorro Zuri kuadrilla ederra elkartu du aurten. BIDAD ETXARTE



Eskolako kozkorrenak oinez ibili ziren baserri baserri *puxka-puxka*. ENEKO ZULAIKA



1. mailatik 3. mailara bitarteko ikasleak herrian ibili ziren. AINTZANE ITURRIA



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa



K-STRETCH

Etorri eta probatu debalde!

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Centro Prim regina.tolosaechepare

Jauzena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com



Otsailaren 5ean eman zuten ikastaroa frontoian. AITOR IBARRA

Desfibriladorearen proiektua aitzineratua dago

Otsailaren 5eko ikastaroan hainbat herritarrek parte hartu zuten eta hori posible egin dutenei eskerrak eman dizkiete

MAIDER PETRIRENA

Duela hilabete batzuk hasitako desfibriladorearen proiektua arras aitzineratua dago eta antolatzaileek uste dute ibilbide honetan lagundu duten guztiei eskerrak emateko momentu egokia dela. «Lehendabizi eskerrak eman Sunbillako herritarrei, antolatu ditugun gauza guztietan parte hartzeagatik, bingoan, txartelakerosten, toka, taloak jaten... eta baita modu anonimoan dirua eman dutenei ere. Zer erranik ez, Talogile taldeari ere, beraien prestutasunagatik eta egin zuten lan izuga-

rriarengatik. Plazer bat da horrelako jendea inguruan edukitzea. Bertzalde, eskerrak eman kurtsoetan parte hartu duten guztiei, beraiek direlako makinak erabiltzen ikasi dutenak eta bizitzak salba ditzaketeenak». Sunbillako eta Doneztebeko udalari eta laguntza eman dute herriko eta inguruko hainbat komertzio eta zerbitzuri ere eskerrak eman dizkiete.

Aipatzekoa da otsailaren 5ean eman zela desfibriladorea erabiltzen ikasteko ikastaroa frontoian eta herritar aunitzek parte hartu zutela.



MAIDER PETRIRENA

Mendi abesbatzaren emanaldia elizan

Mendi abesbatzak kontzertua eman zuen hilaren 12an elizan, Malerrekako Mankomunitateak eta Sunbillako Herriak antolatua, *Pacto de estado* ekimenak lagunduta. Alizia Telletxea, Arantxa Ziganda, Goreti Anzizar izan ziren bakarlariak, pianista Ruth Etxebeste eta zuzendaria Ion Irazoki.

Hegoa Irazoki Andoaingo piano jaialdian saritua

18 urtez beheitiko pianojotzaileei zuzendutako Andoaingo piano jaialdia egin zuten otsailaren 12an. Hegoa Irazoki Urtxegi herritarrek urrezko domina eskuratu zuen. Zorionak Hegoa.



RAKEL URTXEGI

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

BORDALARRERA

Gure Haragia
Nuestra Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65



Orga eta mozorroen desfilea egingen dute larunbat arratsaldean. ARTXIBOKOA

Inauteriak ospatuko dira ortziralean eta larunbatean

Ortziralean auzoetako ibilbidea egingen dute gazteek eta larunbatean orga eta mozorroen desfilea

MARGA ERDOZAIN

Iaz ez baina aurten bai, 2022an inauteriak ospatuko dira. Egitarauari dagokionez, inprobisazioa, azken uneko gorabeherak, eta egitarauan agertzen ez direnak kenduta, honako hau azpimarratzen ahal da:

Otsailaren 25ean, ortziralean 08:00etan, Burrumba gazte taldeak antolatutako auzoetako ibilbidea, kotxez kanpoko aldean dauden auzoetara ailegatzeko. Baina 11:30etik aitzinera gainerako auzoetara oinez egingen dute ibilaldia. Goizean trikitalariek gazteak

animatu eta lagunduko dituzte, 17:00etatik 20:00etara Elutxa Txarangak erreleboa hartuko du eta karrketan barna gazteen ibilbidea alaituko du. San Miguel ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzakoek ere inauteriak ospatuko dituzte eta aukera izanen dute elkarrekin bazkaltzeko. Gauean berreskuratuko dira hain gutagarri diren afariak, adin guztietako kuadrillek aukera izanen dute ganbarako mozorroei hautsa kentzeko.

Otsailaren 26an, larunbat arratsaldean, orga eta mozorroen desfilea izanen da.

Askin Haur Eskolako matrikula epea zabalik eta ate irekiak martxoaren 5ean

M. ERDOZAIN

Askin Haur Eskolak 2022-2023 ikasturterako onartze eta matrikula prozesua martxan du. Martxoaren 1etik 15era, ikasle berrientzat eskaera egiteko epea zabalduko da, 2021-22 ikasturtean aritu diren ikasleek ikaspostuaren erreserba egiteko aukera izan ondotik. Ikasle berriek dagokion dokumentazioa udaletxeko bulegoan aurkeztu beharko dute. Martxoaren 5ean, larunbata, ate idekien jardunaldia egingen dute. Interesa dutenek egun

horretan eskola bertatik bertara ezagutzeko aukera izanen dute baita metodologia eta lan taldea ere.

Informazio gehiago nahi izanez gero, udalaren webgurena jo daiteke edo 948 45 18 68 telefonora deitu. Maiatzean Udalak argitaratuko ditu behin-behineko zerrendak, erreklamazioak aurkezteko epea idekiko da, ondotik, behin betiko zerrendak kaleratuko dira eta prozesua akitzeko interesatuek matrikula burutuko dute.

Zinema emanaldi, ipuin txokoa eta irakurle taldearen hitzorduak egunotan

M. ERDOZAIN

Erreka guraso elkarteak antolatuko zinema emanaldiaren hurrengo hitzordua otsailaren 27an (igandea) izanen da, 17:00etan; *Luca* izeneko filma pantailaratuko dute (gaztelaniaz). Bazkideek euro bat eta bazkide ez direnek bi euro ordaindu beharko dute.

Martxoaren 1ean ipuin txokoa ez da egingen, eskoletako egutegiari jarraitzen baitio. Martxoaren 8, 15, 22 eta 29an ohiko hitzordua izanen da, ipuin eta musikaz gozatzeko aukera izanen dute 0-3 urte arteko txikiek eta laguntzaileek.



'Luca' filma igandean ikusgai.

Otsailaren 28an gaztelaniazko irakurle taldeak Esther Tusquets-em *Correspondencia privada* eleberria landuko du. Irakurle taldean parte hartzeko aukera bada. Interesatuek liburutegian argibideak eskatzen ahal dituzte.



- ATE IREKIEN JARDUNALDIA:

Martxoak 5, larunbata, 10:00etatik 12:00etara haur eskolan

- AURREMATRIKULA: Martxoaren 1etik 15era udaletxean

- MATRIKULA: Maiatzaren 23tik 27ra udaletxean



Elizagibela karrika 8, behea. | T. 948 45 18 68 | DONEZTEBE | NAFARROA | askinhaureskola@gmail.com



Herriko eta inguruko zenbait pilotari Labriten. UTZITAKOIA

Esku pilotaren lekukoak segida dauka herrian

Ugaitz Elizalde Malerrekako txapelketako finala jokatu da eta atzetik indartsu datoz neska-mutikoak

TTIPI-TTAPA

Urteak badira herriko gazteak esku pilotan ari direla. Atzean gelditu dira Unai Apeztegiak profesionaletan egin zuen ibilbidea, Kepa Leizak afizionatuetan egindakoa atzendu gabe. Orain, profesional munduan, Garfe enpresarekin dabil Ugaitz Elizalde buru-belarri eta, nola ez, ezin aipatu gabe utzi herriko mutil eta neska gaztetxoak.

Elizalderen kasuan Garfek berriki abiatu duen binakako txapelketan Aldabe igantziarra atzelari daukala ari da jokatzeko gogor eta ederki, eta bertzetik

Errekako txapelketako finala jokatu du martxoaren 5ean.

Gaztetxoaren kasuan, berriz, Nafarroako kirol jokuan barrerean eta Errekako finala jokatu duete Mattin Leizak eta Mikel Ezkurrak. Bertze pilotariak ere bikain dabilzta.

Nesken kasuan, Ados pilota eskolarekin entrenamenduetan aritzeaz aparte, Nafarroako kirol jokuetan parte hartu duete. Orain, gainera, Eusko Label txapelketako partidak baino lehen, beraien arteko partidak jokatzeko aukera izaten ari dira, horien artean Labrit pilotalekuan ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eraso sexistaren kontra elkarretaratzea

Eraso sexista gehiagorik ez pankartaren gibelean, eskualdeko dozenaka lagun bildu ziren otsailaren 5ean Iturengo plazan herriko bizilagun batek jasandako eraso salatuzko. Hilketa matxista saiakera salatu zuten, eta biktimari elkartzatua adierazi zioten.

Pulunpa eskolako guraso elkartearen zozketa

Guraso elkartearen Eguberrietako zozketako bost sarietako badauzkate saridunak. Inauterietako egun xumea akitzeko elkarteko kideek plazaren erdian zozketa egin zuten eta horrela egokitu ziren: Iturengo dendako saskia Ane Des-kargarentzat; Treseneko bi otorduak Felixi; Iturengo herriko ostatuko bi otorduak Mari Jose Ezkurrari; Tallerreko saskia Bixeltenekoentzat eta Eider ileapaindegiko bonoa Marta Legazkueri. Guraso elkarteak eskerrak eman dizkiete parte hartu duten guztiei.

ETB1eko 'Biba zuek' saioa herrian otsailaren 24an

Otsailaren 14an Euskal Telebistako *Biba zuek* saioa Aritz Ganboa Sakanako artzain ezaguna herrian izan genuen. Imanol, Axier eta Javier alkaterekin herriko etxeo ganbaran aritu zen jaldun inguruko jakingarriak ezagutzen, janzteko pausuak ikasten, ikusten eta, nola ez, baita zirikatzen erne. Erne egon, otsailaren 24an, ortzegun arratsean ikusteko aukera izanen baitugu grabaketa, Maialen Arzallusek eta Xabier Sukiak gidatzen duten ETB1eko saioan.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERTATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA



GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA



Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787



Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com











'Guztionez' abestian joaldunak Enaitzekin batera

Mundu berri bat Guztionez egitasmoa aurkeztzen ari da Bizipoza elkarteak. Bortzirietako Guztioek taldearen Guztionez abestian entzun eta ikus daitezke herriko joaldunak eta nola ez erdi herritarra dugun Enaitz ere. Anima zaitezte zuen alea eskuratuzera.

Bosgarren edukiontzia paratu dute herrian

Malerrekako Mankomunitateak edukiontzi marroiak berriki jarri ditu herrian. Ez dakitenentzat, edukiontzi honetan materia organikoak botatzeko ahal ditugu, denak poltsa biodegradagarrietan sartuak. Helburua, denen artean hondakin guttiago sortzea da.

Herriko etxe eta baserrien seinaleak paratu dituzte

Herriko baserri eta etxeen seinaleak jarri ditu berriki udalak. Seinaleek ederki adierazten dute etxe bakoitzaren zenbakia eta distantzia. Honen bidez gauza aunitz erraztuko dira, adibidez larrialdietan ahalik eta azkarren gerturatuko dira zerbitzuak.

934 bisitari izan zituen Zubietako errotak joan den urtean

FERMIN ETXEKOLONEA

Joan den urtean 934 bisitari izan zituen Zubietako errotak, 2020an baino 51 gehiago (+%5,78). Halere, pandemia aitzineko urteetako datuetatik urrun dago oraindik bisitari kopurua. 2019an, adibidez, 2.468 lagun hurbildu ziren errotara.

Nafarroako Gobernuak Museoen Zerbitzuak emandako datuen arabera, Nafarroako museoek 215.823 bisita izan zituzten iaz, urtebete lehenago baino %142,27 gehiago. Xabierko Gazteluaren Museoa da bisitari gehien (58.809) jaso dituen zentroa; segidan Nafarroako Museoa (29.279) eta Nafarroako Unibertsitateko Museoa (21.832) daude.

Mendi lanak Berdabio enpresari esleituak

Arburua, Sorginzelai eta Usategieta inguruetako mendi lanak Berdabio enpresari esleitu dizkio udalak, 22.111 eurotan (BEZa barne). Inguru horietako oihanetako garbiketarako eta itxiturak eginen dituen enpresak datozen hilabeteetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Etxekolonea bikain

Hau idazterakoan ez dakigu finalean izanen den (otsailaren 19an jokatzeko zuen finalerdia Amurrion) baina Eusko Label binakako pilota txapelketa bikaina egiten ari da Etxekolonea herriko pilotaria (argazkian sake bat egiten), Mujikarekin bikote eginez.



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Mindegia finalean

Patxi Mindegia herriko aizkolaria ere bikain dabil eta XII. Urrezko Binakako Aizkolaria Txapelketako finalerako txartela lortu du, Zigako Joxean Etxeberriarekin batera. Jokatu dituzten bi jardunaldietan nagusitu egin dira Arabar Errioxan eta finala martxoaren 6an izanen dute Azeptian.

Baztango

Inmobiliaria agentzia - API 358
Herentzian espezializatutako abokatua

San Esteban 11 behea
BERA (31780)
Nafarroa

620 028 625
www.baztango.com

Askatasunaren Hirib. 17-2*
DONOSTIA (20004)
Gipuzkoa

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA

Baztan Bidasoko sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212



EHNE, UAGN eta UCAN sindikatuek batera deitu dute greba. UTZITAKOAK

Nekazarien greba deitu dute martxoaren 3rako

EHNE, UAGN eta UCAN sindikatuek batera manifestazioa deitu dute egun horretan Iruñean

TTIPI-TTAPA

EHNE, UAGN eta UCAN sindikatuek dei egin diete nekazari guztiei eta gizarteari, oro har, nekazarien greban parte hartzeko, martxoaren 3an, ortzeguna, Iruñean antolatuta duten manifestazioa joateko. «Nekazari eta abeltzain guztiei, gure produktuak ekoiztu eta merkaturatzen dituzten kooperatiba eta kontserbagileei, gure makinaren mantentze lanak egiten dituzten lantegi eta enpresei, gure animaliak zaintzen dituzten albitariei, pentsua egiten duten enpresei eta kudeaketa ekonomikoa errazten

diguten aholkularitzei, azken batean, inguruan lan egiten duten guztiei» egin diete deia. «Gure lanbidearekiko errespetua» eskatzeko bildu dira nekazarien sindikatuak. Gizartea kalitatezko produktuekin eta elikagaien segurtasun osoarekin elikatzeko gai izanik, eta ingurunea ahalik eta gehien errespetatzen saiatuz, zailtasun ugari ditugu, eta botere publikoak ez dio konponbiderik eman. Gure ustiategietako errentagarritasun faltak eta elikatze-katearen legea ez betetzeak, merkaturatze egotea eragozten digute, desagertze-

ra bultzatzen gaituzte eta, beraz, gizartearentzat ezinbertzekoa den jarduera uztera behartzen gaituzte».

Beraiek ere kontsumitzaile izanik nekazariak kontsumitzaileei ere dei egin diete, «haiek gabe gure existentzia ez litzateke posible izanen, eta haien esku dago, erosketa-saskiaren bidez, etorkizunean ekonomiari, ingurumenari eta demografiari dagokienez iraunkorra izan den nekazaritza eta abeltzaintza-sektorea finkatzea. Mobilizazio honetan egotea ezinbertzekoa da helburu hori lortzeko».

Joan den urtean, Nekazari-tzakako Erakunde Profesionalek hainbat protesta-ekintza egin dituzte elkarrekin gai sektorialekin, eta horren ondorioz, manifestazio orokor bat eginen dute datorren martxoaren 20an Madrilan, eta horrekin bat eginen dute. Mobilizazio horretan landa eremuarentzako errespetua eskatuko dute.

Landa ingurunearen egoera ez dela batere xamurra uste dute eta joera irauli behar dela. «Egungo politika publikoek landa ingurunetik urrun dagoen hiri ikuspegia dute, eta zerbitzu publiko zein pribatuaren hutsuneak, herrien hustutze arriskua larri areagotzen ari dira».

Nolanahi ere, Nafarroako azaleraren % 90 kudeatzen ari direla, eta ingurumenaren benetako zaintzaile eta kontserbatzaile direla gogoratu dute.

'Etorkizunera zabalik' kanpaina abiatu du Cedernak

M. ERDOZAIN

Etorkizunera zabalik-Abrimos al futuro leloarekin, Cederna Garalur Elkarteak kanpaina bat abiarazi du negozioen erreleboa bultzatzeko. Garapen agentzia hasi da dagoeneko errelebo edo esku-aldatze egoeran dauden negozio tikiak identifikatzen eta, aldi berean, hurrengo hilabete hauetan gogor saiatuko da negozio horientzako erreleboak bilatzen. Erreleboa errazteko asmoz, Cedernak negozioaren azterketa bat eskaintzen du, bi ikuspuntu landuz: jardueraren arduradunarena batetik, eta jardura hartu nahi duenarena bertetik. Elkarteak espero du negozioaren baldintzak zerbaki errealekin ezagutzeak, bi aldeen arteko negoziatzia eta erreleboa erraztuko dituela. Gainera, errelebo guztien artean hiru kasu hautatzea aurreikusitako Cedernak, eta horiei marketin eta komunikazioko prestakuntza osagarria eskainiko zaie.

Bertzalde, bi aldeen arteko harremana errazteko, Elkarteak Nafarroako Mendialdeko hainbat tokitan erreleboa behar duten negozioak aurkezteko hainbat jardunaldi antolatuko ditu. Jardunaldi nagusi bat ere eginen dute.



Elizagibela Promociones S.L.

ETXEBIZITZA PROMOZIOA
18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL

www.elizagibelapromociones.com
elizagibelapromociones@gmail.com

T. 643 466 998



ERAIKINA EGITEN HASIA!

- 2 (80 m²), 3 (90 m²) eta 4 (100 m²) logelako etxebizitzak trasteroarekin
- Doneztebeko Elizagibela karrikan
- Lokal komertzialak

N-121-Ako Sunbilla eta Endarlatsa tarreak inbertsio bikoitza

Lesakako eta Berako udalek aurkeztutako hamar alegazioetatik zazpi kontuan hartu ditu Nafarroako Gobernuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Herri Lanetako eta Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, hobekuntza esanguratsuak egingen ditu N-121-A errepideko azken zatian, Sunbilla eta Endarlatsako zubiaren artean. Hone-la, Nafarroako Gobernuak eremu horretan 30 milioi euroko inbertsioa egingen du. Hasierako proiektuan 15 milioi euro zeuden aurreikusita.

16 kilometroko zati honetarako alternatiben estudioa

egiteko eta proiektua idazteko 880.000 euroko gastua egitea onartu du Nafarroako Gobernuak eta datozen egunetan esleituko ditu lanak Herri Lan Departamentuak. Berrikuntza nagusi gisa, Lesaka aldean N-121-A errepide zaharraren zati bat erabiltzea aztertzen ari dira, inguru horretan hiru kilometro inguru eta bi errei izateko noranzko bakoitzera-ko. Asmo horren arabera, errepide zaharra Irun aldera joateko erabiliko litzateke eta errepide berria Iruñea aldera joateko.



Zalaingo lotunea, Beran.

Gogoratu behar da Sunbilla-lako Arrigazteluko tuneletik Endarlatsako zubira arteko zati honetako hasierako proiektuari hamar alegazio aurkeztu zizkiotela Berako eta Lesakako udalek eta horietatik zazpi hartu dira kontuan. Lesakan lotune berri bat egitea eta Beratik Iruñerako irteera berria bertze altuera batean egitea aztertzen ari dira, baita Zalaingo lotunea hobetzea ere.

Emakumeen Egunaren harira mendi buelta martxoaren 5ean

JAIONE ZABALO

Martxoaren 5ean, larunbat goizean, mendian buelta bat emanen dute Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta. Eguerdian, triki-bertso bazkaria ere izanen dute Barrankan, inauterien seinale. Beraz, nahi duena mozorrotuta joan. Bazkarira apuntatzeko Barrankara deitu behar da, 948 61 50 98 telefonora.

Beste aldetik, Euskal Herriko XIII. Mus Txapelketako Ezkurrako kanporaketa martxoaren 12an, larunbatean, 22:00etan jokatu da Barrankan. Zazpi herrialdeetako finalak martxoaren 26an eta 27an izanen dira eta final nazionala apirilaren 9an Baigorriin (Nafarroa Beherea).





Ospatu zure jaunartze besta leku berezi batean. Jantoki pribatuak eta menu aukera zabala.

Errotaldea z/g 31744 ELGORRIAGA (Nafarroa) | T. 948.45.60.45 | www.balnearioelgorriaga.com

Bi ikastaro berri antolatu ditu Arkupeak elkarteak

Oinarrizko osasun laguntza eta oinarrizko informatika ikastaroan parte hartzeko aukera izanen dute bazkideek

P. IRASTORTZA

Datozen hilabetetarako bi ikastaro berri antolatu ditu Arkupeak elkarteak: oinarrizko informatika eta oinarrizko osasun laguntza. Bi ikastaroak 40 ordu ingurukoak izanen dira eta 10-15 bitarteko lagun taldeak osatuko dituzte. Informatikari buruzko ikastaroa Elizondon eta Donezteben emanen dute, eta oinarrizko osasun laguntzari buruzkoa bi herri horiez gain baita Leiztan ere. Biak doan izanen dira Arkupeak elkarteko bazkide diren guztientzat.

Informatika ikastaroari dagokionez, hainbat atal landuko dituzte eta hagitiz interesgarria izanen da bertaratzaren direnzentzat egunerokoan erabiltzeko tresnak ikasiko baitituzte. Ondorengo atalak landuko dituzte: Internet eta

Interneteko orriak, posta elektronikoa nola erabili, *Google Drive* tresna, bideodeiak, online erosketak seguruak nola egin, online tramiteak nola egin, Nafarroako Gobernuaren *Clave* orria nola erabili...

Oinarrizko osasun laguntza

Oinarrizko osasun laguntza ikastaroari dagokionez ere interesgarria izanen da ikastaroan bat-bateko ondorenak nola tratatu ikasiko baitute, eta hori garrantzitsua baita.

Oraindik ez da zehaztua ikastaroak zein egunetan hasiko diren, eta ikastaroetan izena emateko ere ez dago data zehatzik. Zehaztasun gehiago izateko eta izena emateko Doneztebeko bulegoko 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 zenbakira deitu 09:00etatik 13:00etara.



UTZITAKOA

Lorategia errekuperatuko dute Elizondon

Duela bizpahiru urte lorezaintza ikastaro bat egin ondotik, Elizondoko osasun etxeko lorategiak atondu zituzten Arkupeak elkarteko hainbat kideek. Duela gutxi itxura txarra hartu zuten hainbat loreontzik, eta berriz ere horiek apaintzen hasiko dira Ahalik eta lasterren hasi nahi dute apainketa horiek egiten.



P. IRASTORTZA

Urtarrileko saria Engraxi Urrizarentzat

Arkupeak elkarteko bazkideek ez zuten inolako zalantzarik izan urtarrileko galdera asmatzeko, eta anitzek asmatu zuten TTAPI-TTAPA aldizkaria bi astetik behin publikatzen dela. Zozketa egin ondotik, Zubietako Engraxi Urriza Zubiturri egokitu zitzaion urtarrileko saskia.

Otsaileko galdera

Zein herritan sortzen da Baztan-Bidasoko ibairik handiena?
☎ 618 56 78 37.

Mus txapelketako finalak jokatuko dituzte Donezteben martxoaren 17an

P. IRASTORTZA

Hemezortzi hilabeteren ondoren, iazko udazkenean berriz ere abiatu zuten herriz herriko mus txapelketa. Finala azaroan egiteko zuten, baina Covid-19aren pandemia dela eta, azkenean, martxora atzeratzeko erabakia hartu zuten. Finala martxoaren 17an, ostirala ospatuko dute Donez-

tebeko Santamaria jatetxean. Bertan herriz herriko irabazleak elkarren kontra ariko dira, eta ondotik erabakiko da zein izanen den aurtengo txapeldun handia.

Pandemia dela eta, eta jende murrizketak ekiditeko, bai mus finalera eta baita ondorengo bazkarira ere finalistak bakarrik joaten ahalko dira.

Lekua gelditzen da Xabierera egiten den irteerarako

P. IRASTORTZA

Bi urtez egin gabe egon ondotik, Xabiererako ohiko irteera berreskuratuko du Arkupeak elkarteak. Martxoaren 8an izanen da irteera, eta oraindik bada aukera bertan parte hartzeko. Ondorengo egitaraua izango dute: **12:00etan meza**

izanen dute, ondotik **13:00etan bazkaria** Xabier jatetxean. **16:00etan dantzaldia** izanen dute eta **17:00etan Graziako bederatzaurrena**. Handik **18:30ean aterako da autobusa** berriz ere etxera itzultzeko. Irteera ordua izena eman ondotik jakinaraziko dute.

Sartu
gure web berrian
WWW.SILOTITE.COM



www.silotite.com

Silo bolak egiteko plastiko berriak

Bazkak nutriente gehiagorekin
izateko

- Edozein belar klasetan erabilgarria
- Aukeran 500 mm eta 750 mmtan
- Zulatzeko gogorra eta tiramenduetarako sendoa
- Elastikotasun ezin hobea
- Memoria elastiko bikaina
- Ongi itsekitzen dena
- Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa eta UV egonkortasun handikoa
- Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa



SILOTITE
by formipac



Silotite[®]. Segurtasunaren aukera

AROZ-BERRI, S.A.

irurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, km 0,8 - 31730 IRURITA (Nafarroa)
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Faxe 948 452 103 - www.arozberri.com

Okillin kalea berritzeko lanak hasi dituzte

Suhiltzaileen parketik osasun etxera doan zatia berrituko dute eta hilabete batez gutxienez itxita egonen da kotxeentzat

TTIPI-TTAPA

Okillin kalean, suhiltzaileen parketik osasun etxera doan zatian, berritze lanak hasi dituzte, eta Mikel Zabaleta alkateak adierazi duenez, «hilabete batez gutxienez itxita egonen da kotxeen joan-etorrirako».

Berritze lanek irauten duten bitartean, «osasun etxera edo gaineko etxebizitzetara kotxez joateko, Plazaolako bide berdetik joan beharko dute kotxeek. Haur eskolara, Okillera edo liburutegira kotxez joan behar dutenek, berriz, Arkixkil futbol-zelai ondoko apar-

kalekuraino joan ahalko dira». Uraren eta ur-zikinen hodiak berrituko dituzte, eta aurrerago zoladura berria jarriko dute. Alkateak azaldu duenez, «egiten ari diren etxe berrien promotoreak egin beharrekoak dira kaleko zoladura eta sareak berritzeko lanak, baina udalak horiez gain, irisgarritasuna hobetzeko neurri batzuk gehituko dizkio». Hala nola, osasun etxeraino doan espaloi aldapsuan baranda bat jarri eta beheko bidegurutzeko espaloi zatia moldatu eta txukunduko ditu udalak.



Torturatuak izan ziren herritarreko batzuk Berriozarren. JUAN MARI BARRIOLA

Torturak jasan zituzten herritarrek Nafarroako Torturatuen Sarean

JUAN MARI BARRIOLA

Nafarroako Torturatuen Sareak deituta, 1978. urtetik torturatuak izan diren hainbat herritar bildu ziren otsailaren 12an Berriozarren. Egun horretan Nafarroako Torturatuak elkarteak aurkeztu zuten, eta Nafarroako Gobernuari tortura guztiak sakonetik iker-

tzeko eskatu zioten. Inpunitatea salatu zuten, «1960tik 2014ra 82 herritan mila torturatu» izan zirela azalduz, eta tartean, «bi hildako eraginez». Bertan izan ziren Ana Ollo Herritarrekiko gobernuko Harremanetarako kontseilaria eta Martin Zabalza Bake eta Bizikidetzazuzendaria.



JUAN MARI BARRIOLA

Kantuan Santa Ageda bezperan

Urtero moduan, Santa Ageda bezperan, goiz mugitu ziren gaztetxoak herriko etxeetan kantuan eta eskean ibiltzeko. Galdu ez den ohitura da eta urtero berpizten dena neguko ospakizunen artean. Iluntzean ALKE kultur elkarteak deituta kalejiran ibili ziren gurasoak, haurrak eta abeslariak herrian.



Greba egunetan elkarretaratze jendetsuak egin dituzte. ARATZ BARANDIARAN EK UTZITAKOIA

Torraspapel lantegian enpresaren erantzunaren zain

TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, bost greba egun egin dituzte Torraspapel lantegian, eta Aratz Barandiaran enpresa batzordeko idazkariaren arabera, guztiak izan dute jarraipen zabala. Otsailaren 12ko azken greba egunean, esaterako, «lantokia erabat geldituta» egon zen, eta horrez gain, «elkarretaratze jendetsuak» egin zituztela.

Enpresaren jarrera, ordea, ez da nahi bezalakoa izan. Lerro hauek idazterakoa langileek egindako bilera eskareiri ez zien erantzunik eman. «Azken bilera ilbeltzaren 12an

egin genuen eta zuzendaritzak ez du beste bilerarik deitu ordutik. Ilbeltzaren 21ean idatziz eskatu genion bilera. Erantzunik ez zegoela ikusita, pasa den asteazkenean berriz egin genuen bilera eskaera». Baina lerro hauek idazterakoan ez zuten erantzunik.

Hori horrela, otsailaren 17an, berriz langileen batzarrak egitekoak zituzten: «Zuzendaritzaren jarrera ikusita, hemen dik aurrera hartu beharreko neurrien eta mobilizazioen inguruan erabakiak hartzeko». Informazio eguneratua ERRAN. EUSEN.

Martxoaren 8aren bueltan ziklo feminista

Berdintasun batzordeak, Lañaidek eta udalak hainbat ekitaldi prestatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Tailerrak, jolasak, kontzertua, antzerkia, manifestazioa... Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, ziklo feminista antolatu dute berdintasun batzordeak, Lañaidek Leitze-ko Neska* Gaztek taldeak eta udalak.

Ziklo feminista

Martxoaren 5ean, goizean, zoru pelbikoa lantzeko saioa antolatu du berdintasun batzordeak emakumeentzat. Egun eta tenore berean, haurrentzako jolasak ere izanen dira, berdintasun batzordearen ekimenez.

Gauean, berriz, Las Sexpeares taldea gonbidatu dute Lañaidek Atekabeltz gaztetxera, eta 23:30ean kontzertua emanen du.

Egun handian, berriz, martxoaren 8an, manifestazioa deitu du Lañaidek. Baina ez dira hor bukatuko neska gazteen taldeak antolatutako hitzorduak: Martxoaren 9an, autodefentsa feminista tailleraren lehen saioa egingen dute, 16:00etatik 18:00etara, eta apirilaren 4an bigarrena.

Ziklo feminista Herri Aretoran itxiko dute. Udalaren ekimenez, Goitibera konpainiak *Kasilda*, bukatzen ez den sua antzezlana egingen du martxoaren 13an, 19:00etan. Sarrerak aretoko leihatilan 45 minutu lehenagotik erosten ahalko dira, zortzi eurotan.

Ekitaldi gehiago

Ziklo feministatik kanpo beselako ekitaldiak ere izanen dira egunotan. Martxoaren 3an, esaterako, Arturo Vinue-

sa medikua gonbidatu dute Atekabeltz Herrigunera. Medikuak pandemia, txertoak eta osasunaren burujabetza izanen ditu hizpide.

Martxoaren 5ean, bestalde, 16:30ean, *Scream* pelikula pantailaratuko dute, 16 urtetik gorakoentzako. Eta 19:00etan *Mendiak 1976* ikusteko aukera izanen da, 12 urtetik gorakoentzat. Asteburu horretan pase bakarra izanen da. Aurreneko filma ikusteko 4,5 euro ordaindu beharko dira eta bigarrena ikusteko, euro bat. Sarrerak aretoko leihatilan salduko dituzte 45 minutu lehenagotik.

Martxoaren 6an, Udalbiltzak antolatutako Geuretik Sortuak programaren barnean egingen den antzezlana bat ikusteko aukera izanen da. Bonbon Beltz taldeak *Harri minak* antzezlana egingen du, 19:00etan. Sarrerak 45 minutu lehenagotik aretoko leihatilan jarriko dituzte salgai, zortzi eurotan.

Martxoaren 12an, berriz, Atekabeltz Herriguneari antolatuta, Liher taldeak kontzertua emanen du Atekabeltzen.

'Kantu bat gara' maiatzean

Bestalde, maiatzeko hitzordu bat aurreratu du Miren Tirapu kultur teknikariak: maiatzaren 22an *Kantu bat gara* emanaldia izanen da Herri Aretoran. Jon Maia bertsolariak azken 30 urteotan besteentzat idatzitako hainbat hitz bildu ditu *Kantu bat gara* disko-liburuan, eta herriz herri zuzenean ari da aurkezten. Leitzara maiatzean etorriko da, 19:00etan, Herri Aretora. Sarrerak laster jarriko dituzte salgai.



Herritarrek auzolanean. UDALA

Herri lurren ordenantza berriarekin hobekuntzak

JUAN MARI BARRIOLA

Herri lurren aprobetxamendua arautzeko ordenantza berria jarri du indarrean udalak gaia abeltzainekin landu ondoren eta hobekuntzak ekarri ditu: batzordeak berritu, koordinatzailearen ardura sortu, auzolana arautu eta erregistratzen hasi... Udalak, bere aldetik, auzolanetarako materiala eros-

teko 5.000 euroko partida onartu du, herri lurren hektareak ugaritzeko larreen onargarritasun koefizientea ebaluatzeko ikerketa agindu du eta baserri-tarrek erabiltzen dituzten bide eta azpiegiturak berritzeko dirulaguntza eskatu du 120.000 euroko inbertsioa aurreikusiz. Azken hilabetean erreforma antolatuak ere egin dituzte.

Euskal Herriko Mus Txapelketako saioak martxoaren 13ra arte

13. aldiz Euskal Herriko Mus Txapelketa antolatu dute eta finala apirilaren 9an Baigorri izanen da. Leitzari dagokienez, martxoaren 13ra arte egingen dituzte lehen kanporaketak eta herrialde mailako finalak martxoaren 26-27an. Bikoteko 20 euro ordaindu behar da.

Gorritarango bidea gobernuaren ardurapean

Nafarroako Gobernuko Herri Lanen Zuzendaritzak 48 errepide zati berri sartu ditu bere errepideen katalogoan, eta tartean, Gorritaran auzokoa (NA-4015). Hala, gobernu arduratuko da errepide horretako segurtasuna eta erosotasuna zaintzeaz.

Etxean egindako produktuak
Nafarroako aretzea
Bertako gaztak

Eroski Cityn aurkituko gaituztu
Elbarren, 71 - Leitza - 948 68 3134



Aurten ere zahagi dantza herriko kaleetan ikusten aukera izanen da.

Inauterietako gogotsu daude herritarrak

Astelehenean mozorroak baserriz baseri ibiliko dira eta bitartean herrian akelarrez jantziko dira

TTIPI-TTAPA

Joan den urteko geldialdiaren ondoren, aurten bai, aurten inauteriak ospatzeko asmoa du Mozorro Taldeak, eta haien aitzakian, baita gainerako herritarrek ere. Igandetik asteartera, otsailaren 27tik martxoaren 1era izanen dira egun handiak, eta martxoaren 5eko

kontuen egunarekin borobilduko dituzte inauteriak.

Igandean, arratsaldean, gatzetxoek zahagi dantzarekin hasiko dira aurtengo inauteriak. 18:30ean dantzaldia izanen da Garazi Erbiti eta Gorka Arraia-gorekin eta 21:30ean mozorroak afaltzeko bilduko dira, bihar-munerako indarrak hartzeko.

Astelehengoizean mozorroak baserrietara joanen dira, 08:00etan abiatuta. Mozorroak baserriz baseri dabilzan bitartean, herria akelarre bihurtuko da. Horixe izanen baita aurten mozorrotzeko gaia. 18:30ean dantzaldia izanen da Garazi Erbiti eta Gorka Arraia-gorekin eta ilunabarrean mozorroak herrira ailegatuko dira. 22:00etan afaria izanen dute.

Asteartean, berriz, herrian ibiliko dira mozorroak. 10:00etan egin dute hitzordua eta hortik aurrera herrian barnaitzulia egingen dute. 14:00etan bazkaltzera joanen dira eta 17:00etan zahagi dantza dantzatuko dute.

Zahagi dantzari Pantxo Balbuena abeslari mexikarrak hartuko dio lekukoa. 19:00etatik aurrera bere doinuez gozatzeko aukera izanen dute herritarrek. Eguna borobiltzeko, 22:00etan mozorroen afaria izanen da.

Kontuen egunean, 12:30ean mozorroen poteoa egingen dute Igandea txarangarekin, eta bazkalordura arte horrela ibiliko dira. 14:00etan bazkaltzeko elkartuko dira eta arratsaldean, 17:30etik aurrera, Igandea txarangak alaituko ditu bazterrak.

Euskal Herriko Itzuliko etaparik luzeena Leitzatik abiatuko da

TTIPI-TTAPA

Iragarri bezala, apirilaren 4tik 9ra egingen da aurtengo Euskal Herriko Itzulia eta bigarren etapa, apirilaren 5ekoa, Leitzatik abiatuko da. Itzuliko etaparik luzeena izanen da, gainera. 207,92 kilometro osatu beharko dituzte txirrindulariek Leitzatik Vianarako bidean eta tartean, hiru mendate: hirugarren mailako bat Uitzin, Leitzatik atera eta segituan, bigarren mailako Lizarragan, 59. kilometroan, eta helmugarako 20 kilometro falta direla Agilar gaina.

Emakume baserriarren egutegia kaleratu dute

TTIPI-TTAPA

Emakume baserriarren lana ikustarazteko asmoz beren lana egutegi batean bildu du Leitzako, Aresoko, Goizueta-ko eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak. Adierazi dutenez, «emakumeek egiten dituzten baserriko lanak, emakumeek egiten dituzten beste lan asko bezala, ezkutuan geratzen dira. Horregatik, lan hauek agerian utzi, zabaldu eta balioan jarri nahi izan ditugu egutegi hauen bidez». Proiektua 2020 bukaeran hasi zuten Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Programa, Cederna Garalur eta Leitza, Goizueta, Areso, Arano, Atetz, Basaburua, Imotz, Araitz, Larraun eta Lekunberriko emakumeek. Iaz, Raket Rico argazkilariarekin atera zituzten argazkiak, eta ondoren egutegiko hilabete bakoitzean bildu dituzte.



PILI APEZETXEA ETA IGARATZA APEZETXEA.

Goiko zentraletik Sasaingo errekarra ibilaldia

Arainburu Mendi Taldeak antolatuta, Goiko zentraletik Sasaingo errekarra ibilaldia egin zuten otsailaren 13an 20 bat lagunek. Patxi Etxeberriak egin zituen gidari lanak, eta Jose Jabier Etxeberriak hainbat azalpen eman zituen.

Omenaldi beroa egin diote herritarrek Adur Etxezarretari

Jaitsiera proban hamazazpigarren postua lortu du Joko Olinpikoetan izandako lehenbiziko parte-hartzean

ENERITZ IRAOLA

Adur txapeldun! Areso zutaz harro! irakur zitekeen Pake Toki atarian zintzilikatu zuten pankarta handian. Herriko umeek mimoz eta ilusioz, beraien eskuak margotuz, egin zuten arratsalde batean. Zetorrenaren aurrekari bat baino ez zen, isilean antolatzen ari ziren omenaldiaren parte. Azken asteetan herritarrek izan duten ilusioaren erakusle; ez baita askotan izaten herritar bat Olinpiar Jokoetan.

Maila bikaina erakutsita etorri da Pekindik. Jaitsiera proban 17. postua lortu du eta segundo gutxira izan ditu liderrak. Orain arte euskal herritar batek proba horretan inoiz egin duen denborarik onena da.

Pekinen jantzi ez dioten txapela, herritarrek eta lagunek jantzi zioten otsailaren 12an,

plazan egin zioten omenaldian. Eskiak eta makilak goian zituztela, arkuak eginez, egin zioten ongietorria Adurri. Bildu zen jendetzaren erakusle da plaza alderik alde zeharkatu behar izan zuela. Trikitilariak izan zituen bidelagun eta haurrek dantzatu eta Jaione Olazabalek abestutako agurraren txanda izan zen gero. Beñat anaiak jantzi zion txapela. Leitzako eta herriko lagunak hitzak, Joanes Illarregik botatako bertsoa, lehengusinarekin hitzak... denek azpimarratu zuten Adurrek lortutako emaitzak «lanaren fruitua direla eta ametsa egia bihurtzeko egin duen ahaleginaren saria». Yanquingo jaitsierako aldapak hanketan sortu ez zion dardara sorraz zioten herritar eta lagunak. Harrituta, lotsatuta eta hunkituta, eskerrak eman zituen.



Herritarrek eskiekin arkuak egin zioten Etxezarretari. ENERITZ IRAOLA

Saneamenduaren tasa ordaintzeko epea

Udalak ohar bidez jakinarazi du, aurtengo saneamenduaren tasa ordaintzeko epea zabalik dagoela. Tasa borondatez ordaintzeko epea otsailaren 1ean ireki zuen eta laster itxiko dute: datorren asteartera arte, martxoaren 1era arte, zabalik mantenduko dute.

Sasoiko dabil Leire Baraibar herritarra

Otsaila txapeletan oparoa izan da Leire Baraibarrentzat. Parte hartu duen bi lasterketetan garaipena lortu du: Berastegiko Negu Trail lasterketan eta Zestoako Kobaz koba trailean. Berastegin 01.46.35eko denboran egin zuen eta Zestoan 02.42.48koa.



Oinezkoen bidean informazio panelak jarri dituzte

Sutegi ondoan eta Patxikune atarian, oinezko bidearen sarre- eta irteera puntuetan informazio panelak jarri dituzte, herriko argazkiak eta hainbat informazio interesgarri bilduz. Hondakinen Mankomunitateak antolatutako Organikop-an lortutako dirua erabili dute.

Korrikako bi kilometro erosi dituzte herritarrek

Aresoarrek ere euskararen aldeko lasterketa handiarekin bat egin dute eta aurreko edizioetan bezala, Korrikako bi kilometro erosi dituzte. Hori-rietako bat udalak ordainduko du eta bestea Aresoko eragileen artean hartuko dute: Larrea eta Bake Toki elkarteek, Guraso Elkarteak, Usoa Elkarteak eta Lagun arteak. Apirilaren 9an, larunbatarekin, gauerditik aurrera pasako da Korrika gure inguruan, eta aresoarrek lekukoa Urto- tik Leitzarako bidean eramango dute.



BEA MURO

Santa Ageda bezperako eskea

Santa Ageda bezperako eskean atera dira aurten ere herritar- rrek, haur, gazte eta heldu. Guraso Elkarteak antolatu zuen hitzordua eta euria eta konfinamenduak tarteko, nahi baino jende gutxixeago bildu zen arren, ederki eutsi zioten azken urteetako ohiturari.

Aroztegiko lanen hasiera legez kanpo utzi du Auzitegiak

Palacio de Arozteguiaren kasazio-errekurtsua balio gabetu du Nafarroako Auzitegi Nagusiak

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 31n Nafarroako Auzitegi Nagusiak Aroztegiko obren esleipenari buruz emandako epaia eskuratu du Baztango Udalak. Bertan, ez dute onartzen Palacio de Arozteguiako konpentsazio batzordeak TEX enpresari egindako esleipena urbanizazio lanak hasteko. Beraz, 2021eko maiatzean hasi zituzten lanak balio gabetu dituzte.

Udalak adierazi duenez, «afera aski garrantzitsua da, Palacio de Arozteguiak urbanizazio lanak hasi zituelarik, ordurako Nafarroako Auzitegi Nagusiak esleipena balio gabea zela erran baitzuen. Auzitegiak Nafarroako Kontratu Publikoen Epaiahaiaren ebazpena berretsi zuen, LAB sindikatuari arrazoia eman

baitzion baldintzen agiriaren kontrako errekurtsua aurkeztean».

Herritarrei arrazoia eman die

2021eko maiatzean, TEX enpresak Aroztegiko lanak hasi zituelarik, «herritarrek eta Baztango Udalak behin eta berriz erran zuten obrak egin ahal izateko esleipena balio gabea zela, hau da, obren hasiera legez kontrakoa zela». Horregatik, Nafarroako Gobernuari eta Auzitegi Nagusiari «legezkotasun printzipioa betearazteko» eskatu zioten. «Baina inork ez zuen kasurik egin, Palacio de Arozteguiak epaia kasazio-errekurtsu bat aurkeztu ziola argudiatuz». Orain ezagutu den epaia «herritarrei eta Baztango erakundeek arrazoia ematen die».

Anizko Orakunde eguna ohiko moduan

MAITANE MARITORENA

Heldu den otsailaren 26an Anizen Orakunde eguna ospatuko da. Iaz pandemia zela eta, goizeko puska biltzea ez zen egin, etxez etxe ez zen ibili, nahiz arratsaldeko jostetak berdin egin ziren. Aurten, berriz, egun guztiko besta izanen dute haurrek.



Horrelako irudiak ikusteko aukera izanen da aurten Elizondon. ONDIKOL

Orakunde eguna eta inauteriak ospatzea erabaki du Elizondoko Herriak

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 14an bildu ziren Aitor Bazterrika alkatea, kargudunak eta bi ikastetxeetako guraso elkarte eta irakasleak.

Ortzegunean izanen da Orakunde, otsailaren 24an, eta Baztan Ikastolako eta Elizondoko Eskolako haurrak banaturik, lau zonatan eginen dituzte jokoak adinaren arabera. Plazan Haur Hezkuntzakoak, Lehen Hezkuntzakoak, bigarren ziklokoak Baztan pilotalekuan eta hirugarren ziklokoak laxoako frontoian. Gainera, zaharrenek ohiko itzulia eginen dute Saskaitz plazatik abiatuta eta geldialdia eginen dute zahar-etxean. 14:00etan Elizondoko jate-txetean taldeka bazkaltzeko aukera izanen dute, eta arratsaldean, eguraldi ona eginez gero, laxoako pilotalekuan

elkartuko dira taldeka oilarra harrapatzeko. Egunari akabaila emateko, merienda banatuko dute haurren artean.

Ortziralean, berriz, haurrek agerraldia eginen dute arratsaldean, eta orga bana aurkeztuko dute. Ohiko ibilbidea eginen dute, beheitiko ikastolatik plazaraino. Ttikienak joanen dira lehenbiziko, plazara ailegatzean segidan merienda hartzeko. Kozkorrenak gibeletik joanen dira. 20:00etan, berriz, helduen danborrada izanen da, Ruben Ziganda eta Arantxa Ziaurrizen gidaritzapean, eta Elizondoko Musika Bandak ere parte hartuko. Bakoitzak bere danborra etxetik ekarri beharko du.

Larunbat goizean, urtero bezala, kuadrillen desfilea eginen dute Elizondotik barna. 11:30ean moztuko dute Santiago karrika.

TTikiei entzunez eta behatuz, elkarrekin hazi

AURREMATRIKULA

Martxoaren 8tik 22ra haur eskolan.
Ordutegia: 09:00-11:00.

ATE IREKI PERTSONALIZATUAK

Hitzordua hartzeko deitu konpromisorik gabe 667 80 83 95 zenbakira.



BAZTAN HAUR ESKOLA

Amezti 16. 31700 ELIZONDO. NAFARROA.
haureskola@baztan.eus



Ricardo eta Javier Zabalza Elorga omenduko dituzte

Frankistengatik torturatuak eta fusilatuak izan ziren bi anai erratzuarrak haien sorterrian omenduko dituzte

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak eta Erratzuko Herriak Ricardo eta Javier Zabalza Elorga erratzuarrak oroitzeko bi jarduera antolatu dituzte Erratzun.

Otsailaren 24an Ricardo Zabalzari buruzko mintzaldia egingen dute Etxelebert elkarrean 20:00etan. Emilio Majuelo historialari eta NUPeko irakasleak emanen du solasaldia, Zabalzari buruz argitaratu zen *La generación del sacrificio* liburuaren autoreak.

Otsailaren 26an izanen da bi anaien oroimen ekitaldia, Erratzuko plazan 12:00etan. Ekitaldian gereziondo bat landatuko dute, Ricardo Zabalzak bere azkeneko eskutitzean eskatu bezala, eta bertan parte hartuko du Abel Zabalzak, bere semeak.



Ricardo Zabalza Elorga.

Errepresioaren biktimak

Ricardo Zabalza Elorga Lurreko Langileen Federazio Nazionaleko UGTko Idazkari Nagusia izan zen, diputatu sozialista eta Valentziako gobernadore zibila. Javier Zabalza Elorga, bere anaia, militante sozialista izan zen. Frankistek biak bortizki torturatu eta fusilatu zituzten, Ricardo Madrilen eta Javier Escón (Zaragoza, Aragoi).



Ikastetxeko hainbat familiak parte hartu zuten jardueran. BAZTAN IKASTOLA

Mahai-jokoen kutxa ibiltaria Gartzainen

Mahai-jokoen kutxa ibiltariak Baztango itzuliarekin segitzen du eta Gartzainen izanen da otsaileko azken asteburuan, hilaren 26an eta 27an. Baztango Kultura Zerbitzuak eta Gartzaingo Herriak antolatua, haur, gazte eta helduendako aukera izanen da jokoeekin disfrutatzeko.

Zuhaitz eguna egin du Baztan Ikastolak

Zuhaitz Eguna ospatzeko elkartu ziren otsailaren 13an Baztan Ikastolako haur eta gurasoak, «gure ingurunea ezagutzea eta basoak maitatzen, errespetatzen eta zaintzen ikasteko» helburuarekin. Zuhaitzak landatu zituzten mendian eta Iban Larratxea basozainaren azalpenak izan zituzten.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Etxahun Galparsoro historialariak eman zuen solasaldia. UTZITAKOA

Alejandro Elizalde gogoratu dute Elizondon

Nazien kontrako erresistentziaren kide izan zen elizondarra omendu zuten bere heriotzaren 75. urteurrenean

TTIPI-TTAPA

Alejandro Elizalde Iribarren elizondarra gogoratu zuten otsailaren 10ean bere sorterrian, Irujo Etxea Elkarteak eta Sabino Arana Fundazioak antolatutako ekitaldian. Joan den abenduaren egitekoa zen ekitaldia, Elizalderen heriotzaren 75. urteurrenean, baina hilabete batzuk gibelatu behar izan zuten. Etxahun Galparsoro historialariak eman zuen hitzaldia eta Alejandro Elizalderen bilobak, Isabel, Alberto eta Joaquin Elizalde Arretxea ere ekitaldian izan ziren.

Etxahun Galparsoro

Etxahun Galparsorok, Euskal Herriko historia garaikidean espezializatutako erakundea den Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren (LBF) dokumentazio-zentroko historialari eta artxibozainak eman zuen solasaldia. Marcelino Bilbaoren (Bilbo, Mauthausen, Kritika, 2020) oroitzapenak idatzi ondotik, Hirugarren Reich-eko kontzentrazio-esparruetara egindako errepublikazaleen deportazioak ikertu ditu eta gai hori jorratuko du lantzen ari den doktoretza-tesian.

Bizitza gogorra izan zuen abertzalea



Alejandro Elizalde

Alejandro Elizalde ELA sindikatuko eta EAJ-PNVko militantea 1946ko azaroaren 23an hil zen Kanbon. Elizondoko Puriosenean sortu zen, 1894ko otsailaren 9an, Ekonomia ikasi zuen Zaragozako Unibertsitatean, eta Donostiara joan zen bizitzera ikasketak akitu ondotik. Errepublikak ailegatu zenerako, ELA sindikatuko eta EAJ-PNVko militantea zen eta Gerra Zibila hasi zenean, jeltzaleek osaturiko Azpeitiko Defentza Batzordean aritu zen. Gipuzkoa galdu ondotik, Bilbora joan zen eta Euskadi autonomia frankisten esku gelditu zenean, Eusko Jaurilaritzaren ardurapeko preso askapenean parte hartu zuen.

Iparraldera erbesteratu zen eta jeltzaleen Donibane Lohizuneko bulegoan lan egin zuen. Orduan, Frantziako zerbitzu sekretuekiko harremanetan hasi zen, eta espioi frankistak neutralizatzen lagundu zien.

Okupazioaren ondotik ere ez zen geldirik egon. Comète sarearekin jarri zen harremanetan, eta horren laguntzaz, mugara iristen ziren eraitsitako hegazkinlari aliatuei muga zeharkatzen lagundu ohi zien.

1943ko uztailaren 13an Gestapoak atxilotu zuen komunista zela egotzita, eta abuztuaren 10ean Fresnesko espetxera eraman zuten. Orduan hasi zen Elizalderen bidaiak Frantziako kartzela eta nazien kontzentrazio-esparruetan barna: Rominville, Compiègne, berriz Fresnes, Mauthausen, Melk-eko Quarz eta Ebensee.

1945eko maiatzaren 6an soldadu aliatuek askatu zuten, baina ordurako arras motel zebilen. 1946an tuberkulosia diagnostikatu zioten eta Kanboko erietxe batera eraman zuten urriaren 23an. Hala ere, hilabetera hil zen, sufritutakoaren ondorioz arras ahulduta.



instalazioak
IGOGAILUAK



PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK
Kanpoko fatxadak guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



2 BARRUKO IGOGAILUAK
Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako egokituak.



3 IRISGARRITASUNA
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.






Presta zaitez negurako ... Berritu zure leihoak

Aprobetxatu dauden diru-laguntzak,
gestioekin lagunduko dizugu!


THERMOFIBRA
by deceuninck

Uf 0.88 (W/m² K)



Energia-eraginkortasun handiko leihoak

deceuninck



«Almandoztarrok ez dugu bi zuloren artean bizi nahi»

PROIEKTUAREN KONTRAKO HERRITARRAK ALMANDOZKO BIZILAGUNAK

Canteras Acha enpresak Almandozen zundaketak egiteko asmoa erakutsi du, herrian bigarren harrobi bat egiteko helburuarekin. Herritarrak proiektuaren kontra agertu dira



Almandozko hainbat herritar elkartu dira proiektuaren kontra eta 102 sinadura lortu dituzte. UTZITAKOIA

R. OSKARIZ | ALMANDOZ

Arizkunen eta Elbeten gertatu den bezala, Canteras Acha enpresak Almandozen hainbat zundaketa egiteko asmoa du, harrobi bat egiteko helburuarekin. Hau enpresaren bigarren harrobia izanen litzateke herrian, eta almandoztarrok proiektu honen kontra mobilizatu dira, ez dutelako «herria bi harrobiren artean gelditzea» nahi.

Zer egin nahi du zehazki enpresak Almandozen?

Arizkunen eta Elbeten bezala, Almandozen ere zundaketak egin nahi dituzte, ondotik harrobi berri bat irekitzeko. Proiektua Uzketan egin nahi dute, herriko hego-ekialdean dagoen paraje batean. Gaur

egungo harrobia ipar-mendebaldean dago, beraz, herria bi harrobiren artean geldituko litzateke. Oronoz aldetik Iruñerako bidean zoazela, Arrixuri harrobia herriaren eskuineko aldean ikusten da, Uzqueta, berriz, N-121-A errepidearen ezkerrean dago.

Nola izan zenuten proiektuaren berri?

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten proiektua eta bertan ikusita izan genuen

«ALMANDOZEK EMAN BEHARREKOAK EMAN DITU»

haren berri. Ez dugu enpresarekin harremanik izan.

Zein da almandoztarren iritzia proiektuaren inguruan?

Abenduaren 10ean batzarre informatibo bat egin genuen herrian gaiari buruz informazioa emateko. Bertan zeuden herritarrek, aho batez, proiektuaren kontrako helegiteak aurkeztea erabaki zuten. 102 herritarren eta kaltetuen sinadurak bildu dira, beraz uste dugu nahiko argi dagoela al-

«HERRITARRAK ASPERTUTA ETA NEKATUTA GAUDE KONTU HONEKIN»

mandoztarrok ez dugula bi harrobiren erdian gelditu nahi. Ez dugu bi zuloren artean bizi nahi, herri fantasma batean bilakatuko litzatekeelako Almandoz. Gainera, trafiko astuna ere nabarmen igoko litzateke, herritik pasatzera behartuak baitaude, hori izanen litzatekeelako harrobi berriaren eta gaur egungo plantaren arteko konexio bakarra. Almandozek eman beharrekoak eman ditu.

Nortzuk hasi duzue sinadura bilketa?

Hainbat herritar elkartu gara bilketarako eta gure helburua argia da: lehen pausoa proiektuaren kontrako iritzia erakustea da, eta hori bideratzeko Nafarroako Gobernuaren aitzinean helegiteak aurkeztu ditugu. Alde batetik, herritar eta kaltetuen 102 sinadura bildu ditugu eta bertzetik, abeltzainek aurkeztutako helegite bat dago, lau sinadurekin. Azken hauek Baztango herri lurra aprobetxatzen dituzte beren ustategietako aziendak bazkatzeko.

Erantzunik izan al duzue?

Urtarrileko azken egunetan aurkeztu genituen helegiteak, erran bezala 102 sinaduren babesarekin. Momentuan ez dugu erantzunik hartu. Denbora kontua da, eta zain egonen gara.

Arizkungo eta Elbeteko herritarrak egoera berdintsuan daude. Haiekin harremanetan jarri zarete?

Arizkungo herritarrekin harremanetan egon gara. Elbeteko herriarekin oraindik ez, baina jarriko gara. Orain arte gure helburua edo egin behar nagusia helegiteak prestatzea eta aurkeztea zen eta horretan aritu gara buru-belarri. Momentuz, Nafarroako Parlamentuan bisita bat eskatu dugu, baita gaian eskua duten Nafarroako Gobernuako departamentuekin ere.

Zer suposatzen du herriarendako harrobi baten ondoan biziitzeak?

Garraio astuna ugaria da Almandozen. Herri guzietan

saihesbideak eraikitzen dira herrian trafikoa saihesteko, hemen guztiz kontrakoa pasatzen da. Hainbat urte daratatzagu bidearen gaiarekin, baina gaur egun oraindik ez da konpondu.

Eta zer ondorio ekarriko litzuke bigarren harrobi batek herritarrendako?

Erran bezala, Almandozko herria bi zuloren tartean geldituko litzateke. Garraio asuntaren trafikoa ere aunitz igoko litzateke. Gainera, leherketak izanen lirateke eta ingurumeneko inpaktua eta ikusmen inpaktua ere nabarmena izanen litzateke. Nork bizi nahi du horrelako herri batean? Herri fantasma batean bihurtuko litzateke, gazteak ez dira herrian geldituko eta kanpotik ez dira Almandozera bizitzera etorriko. Gainera, bertze ekonomietan ere eragina du proiektuak. Zundaketak egin nahi diren lekuan abeltzainek belardiak dituzte, eta beren ustiategietako errentagarritasuna nabarmen kaltetuko da belardi hauek galtzen badituzte. Zer erranik ez, norbaitek turismoarekin ikustekoa duen enpresa bat ireki nahi badu, landetxe bat edo bertzelako edozein aktibitate, izanen litzuzkeen ondorioak. Nor etorriko da?

Ez da enpresak Arritxuri harrobia zabaldu nahi duen lehenbiziko aldia, ezta?

Ez. 2013an ere gauza berdintsua gertatu zen eta urrian egindako Batzar Nagusian



Almandozko Arritxuri harrobia Canteras Acha enpresarena da. ARTXIBOKOA

zundaketen eskaerari ezetza eman zioten. Baina badirudi baietza lortu arte ez direla geldituko.

Almandozko enpresa da Canteras Acha, ez?

Enpresa Almandozen dago bai, baina ez dakigu zenbateraino edo zein portzentajetan den Almandozko baten edo batzuen parte. Kanpoko jende ugari dago bertan lanean.

Haiekin egoteko aukerarik izan duzue?

Haiekin egoteko aukera badago, baina zer lortuko dugu horrekin? Beraiek badakite 2013an herriak zer erran zuen gaiari buruz. Urteak daratatzagu harrobiaren kontuekin eztabaidan, herritarrak asperuta eta nekatuta gaude.

Milotxuri Bizirik plataformako kideek aipatu zuten, «etekin ekonomiko azkarra bilatzearen orde momentuko beharrak asetzeko haina lehengai ustiatzen dituen eredu ekonomiko baten alde gaude». Proiektua beharrezkoa dela uste duzue edo etekin ekonomiko hutsa bilatzen du?

Beharrezkoa den edo ez, ez dakigu. Hori dagokionak baloratu beharko du. Baina beharra izateak ez du herria azpian hartuko duen proiektu bat justifikatzen.

Zerbait gehitu nahi duzue?

Almandozen etorkizunajokoan dago proiektu honekin. Herria bai edo herria ez? Almandoztarrok ahalegin guziak egingen ditugu herriak bizirik segitu dezan.

Milotxuri Bizirik plataformak 658 sinadura lortu ditu helegitean

«Arizkungo Menditxuri, Milo eta Olazarko inguruetan egin nahi dituzten zundaketen eta hauek ekarriko litzuzkeen ustezko harrobiaren kontra», Milotxuri Bizirik plataformak helegite berri bat aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Industria Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzuan.

Arizkungo herritarrek, plataformako kideek hainbat baztandarrek eta zenbait erakundek eman diote atxikimendua helegiteari, «658 sinaduren babesarekin». Honekin, plataformako kideek hogei helegite inguru igorri diote Nafarroako Gobernuari ilbeltzaren hasmentatik, eta «helburua beti berdina dela» adierazi dute; «Arizkun Sur 3602 meatze-ikerketen proiektua bertan behera uztea».



- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



**EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU**



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Herriko etxearen aitzinean bildu zen jendea urte-zahar egunean. UTZITAKOAK

'San Valentil' ospatu zuen Baztan Iñarrosi taldeak otsailaren 12an

TTIPI-TTAPA

Baztan Iñarrosi neska* gazteen taldeak hainbat jarduera antolatu zituen otsailaren 12an Elizondon, Baztango Talde Feministaren, Gazte Asanbladaren eta Udalaren laguntzarekin.

Hasteko, maitasun erromantikoari buruzko tailerra izan

zuten arratsaldean Baztango Gaztetxean. Ilunabarrean, mural bat margotu zuten, *Feminismoak babesten gaitu!* leloarekin. Ondotik, nesken-dako afaria egin zuten gaztetxean eta eguna borobiltzeko, Kai Nakai artistaren kontzertua eta guatekea izan zuten gauean.

'Lixura' garbiketako enpresa publikoak 229.723 euroko aurrekontua izanen du

TTIPI-TTAPA

Ilbeltzaren 1etik Lixura Baztan SL udalaren garbiketako enpresa publikoa lanean ari da eta administrazio kontseiluak 229.723,82 euroko lehen aurrekontua onartu zuen, 2022 urteari begira. Enpresa berriak Baztango eskolak eta mediku kontsultategiak garbitzeko udalaren agindua du, guztira 16 eskola eraikin eta 6 mediku-kontsultategi. Enpresak 11 langile ditu eta orain artio ari zirenak subrogatu ditu. 2019an hasi zuen udalak garbiketa

zerbitzuak publiko egiteko prozesua eta egin beharreko prozedura juridiko eta administrazioak egin ondotik, azkenean lanean hasi dira. Prozesu honen helburua «zerbitzua eta laneko baldintzak hobetzea» da.

Zerbitzuen publikatzea

Zerbitzuen kudeaketa publikoa berreskuratzeko prozesua martxan da azken urteetan; Giltxaurdi, Zaintza Lanak Baztan, Lixuri... eta orain haur eskolaren kudeaketa publikatzea aztertzen ari dira.

Irurritako jubiloteka zerbitzua martxan paratu dute

Harremana elkarteak Edurne Garro teknikariarekin antolatua, joan den astean egin zuten lehenbiziko saioa, eta astero elkartzeko asmoa dute, ortziraletan 10:00etatik 12:00etara, Erreboteko plazako Erdiz gelan. Otsailaren 14an egin zuten antolatzaileek lehen bilera eta taldea sortu zuten. Gehienez 12 lagun elkartuko dira jubilotekan, eta nahi duena agertzera animatu dute. Hainbat jarduera egingen dituzte jubilatuek zahartze aktiboa izan dezaten; gimnasia, garapen kognitiboa (memoria), solasaldiak, kantak, karta-jokoak...

Edukiontzi marroiak paratu dituzte hainbat herrigunetan

Baztango Udaleko Hondakin sailak hondakin organikoaren bilketan bertze pauso bat eman du, Europatik markatutako 2017-2027 urte bitarteko planaren helburuak lortzeko. Edukiontzi marroi bidezko zirkuitua handitu dute, eta gai organikoak kontenedoretan bereizteko aukera Elizondoko herriguneko puntu guzietara eta Amaiur, Erratzu, Elbete, Arraioz eta Almandozko herrigunetara zabalduko dute. Honekin, kontenedore berdearen erabilera murriztu nahi dute. Hondakin organikoak beti poltsa hetsietan bota behar direla oroitarazi dute.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean






Aurrematrikula:
martxoaren
7tik 11ra

Elizondo
Ikastetxe Publikoa

ATE IREKIAK:
Martxoak 7, 16:45 euskaraz
Martxoak 8, 16:45 gazteleraz

-%70
-%15
-%60
-%30
-%20



ALMACO Materiales de Construcción

Santiago 93, 31700 Elizondo

www.almacobaztan.com
Tel. 948 580 104



2012ko ihauterietan hartutako irudia. ARTXIBOKOA

Dantxarinereko itzulia eta etxez etxeko eskea ihauterietan

Aurtengo ihauteri bereziak antolatzeko hainbat bilera egin dituzte gazteek

ARANTXA ETA IRAIA

2020ko azken ihauterien ondoren, joan den urteko geldialdia etorri zen. Baina aurrean herritarrek prest dira ihauteriak ospatzeko.

Aurtengo ihauteri bereziak antolatzeko hainbat bilera egin dituzte gazteek. Horien artean azkena lerro hauek idatzi ondoren egitekoa zuten, otsailaren 18ko arratsaldean Gaunara elkartean. Orduan lotzekoak zituzten ihauterietako azken xehetasunak eta orduan adostekoak zituzten egungo egoerari egokitutako neurriak.

Bentetan eta etxez etxe

Baina Dantxarinereko itzulia eta etxez etxeko eskea berreskuratuko dituzte. Hala, igande honetan, otsailaren 27an, goizean goizetik mozorroak jantzi eta Dantxarinerean barna bentaz benta ibiliko dira gazteak eskean, ilundu arte.

Etkez etxeko eskea ere egingen dute baina, etxeen buelta zein izanen den lerro hauek idatzi ondoren erabakitzeko zuten, otsailaren 18ko bileran.

Honela bada, has daitezela gazteak ihauterietako mozorroak prestatzen! Segur aski gogotsu egonen dira eta!

Partida politik jokatu dituzte herriko pilotari gaztetxoek

ARANTXA ETA IRAIA

Otsailaren 12an Baztango pilota elkarteko gaztekoen pilota partidak izan ziren herriko frontoian eta herriko gazteek partidak jokatu zituzten. Umeetan, Ekhi Jaurena herritarrek Beñat Sanzberroekin, Aieko Migeltorena eta Gaizka Azkarragaren

kontra jokatu zuten (11-18). Kimuetan Urdazubiko Oier Elorgak eta Oihan Irigoienek Manez Etxeberri eta Aitor Cia 12 tantotan utzi zituzten. Ariz Agesta urdazubiarrak Oihan Arraztoarekin irabazi zuten herriko Ibai Agestari eta Aitor Ariztegi zugarramurdiarrari.



Kirola egiteko hainbat tresna herritarren eskura daude parkean. ARANTXA ETA IRAIA

Kirola egiteko tresnak paratu dituzte plazako parkean

ARANTXA ETA IRAIA

Joan den urtean, La Caixaren eskutik dirulaguntza lortu zen herriko kirola egiteko makina batzuen paratzeko. Horretarako leku egokiena zein zen erabakitzeko hainbat solasaldi egin zituzten herriko etxean, eta horrez gain, herritarren laguntza ere izan zuten eta

proposamenak bildu zituzten. Azkenik, herriko plazan dagoen parkean paratzea erabaki zen, denon eskura egoteko. Hortaz, urtarileko azken astetik aitzinera makina berriak ditugu herriko nahi duenak erabil ditzan. Kirola egin nahi duenak hortxe ditu hainbat tresna eskura.


LANDA
Hartzaindegia

BISITA GIDATUAK
Aldez aurretik deitu behar da hitzordua hartzeko

AURREMATRIKULA
Martxoaren 1etik 15era

ZATOZ GU EZAGUTZERA!

Juan Aguirre, 1 | URDAZUBI | T. (0034) 693 76 49 49
info.landa03@gmail.com

ORDUTEGI ZABALA
FAMILIEN BEHARRETARA EGOKITZEN GARA
URTE OSOAN IREKIA

Gure ttikien garapena bermatzen dugu, bakoitzaren erritmoa errespetatuz, inguru seguru eta goxo bat eskeiniz.





Garbiketa lanean eta Goiburuko hilobia azaleratua. MARIFA ETA KORO

Ingurua txukundu eta ondarea argitara elizargietetan

1783. urteko familia edo etxe-hilobiak azaleratu dituzte otsailaren 12an egindako aitadaren ondotik

MARIFA ETA KORO

Haitada polit bat egin zuten elizargietetan otsailaren 12an. Berez toki eder bat zena (arboltxo, lore eta belar garbia), sasitu eta abandonatua gelditua zen, eta hortan aritu ziren karraskan: pareta eta eskaile-retako huntza garbitu, sasiak kendu, eta loreak kimatu. Horretaz gain, aitzineko haitadan egin gabe gelditu zena ere egin

zuten: ezkila-dorreen pilatua zen uso-ongarria kendu zen.

Aldi berean, herri ondarearen parte bat ere erreperatu zuten: elizargietetan dauden harrizko hilobiak lur azpian geldituak dira, eta ia haien seinalerik ez da gelditzen, ba, horietako lau agerian utzi zituzten: Malasta, Goiburua, Narkonea eta Katalenekoak. Denak 1783. urtekoak dira.

Abiadura handiko Interneta kontrata daiteke bi herrietan

MARIFA ETA KORO

Mendi zokoetan gauden herri hauetara, teknologia ere mantsu ailegatzen zaigu. Hori da Interneteko abiadura motelarekin gertatzen zaiguna.

Hala ere, duela urte bat edo, zuntz optikoa (hau da, Interneteko abiadura azkarra) sartu zuten herriko etxera, eskolara, museora, eta medikuaren konsultategira, eta orain, martxotik aitzinera etxe partikularretan ere aukera izanen da Mb 1etik 500 Mbra pasatzeko. Adamo enpresak ematen du zerbitzu hau Zugarramurdin eta Urdazubin, bi udalekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz.

Horretan interesa daukanak enpresakin jarri behar du kontaktuan helbide honetan: <https://adamo.es/es/fiberhood/fibra-zugarramurdi>.



Errota errentan eman nahi dute.

Errotan bizitegia errentan eman nahi du udalak

Hasieran landetxe bezala gestionatzeko prestatu zen errota, baina moldaketa batzuk egin ondotik, orain herriko etxeak bizitegi bezala ematen du errentan.

Bi pisu dituen etxe guztia eman nahi du errentan, denera 116 metro koadro, non beheetiko aldean sala eta sukaldea diren, eta gainekoan hiru ganbara eta komuna.

Eskaria egiteko epea otsailaren 2tik 17ra izan da.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



IBARGOYEN
SUMINISTROS CARROCEROS



www.ibargoyen.net

943 616 587

Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Ihauteriak ospatuko dituzte larunbatean eta igandean

Larunbatean etxez etxeko eskea eginen dute gazteek eta igandean desfilea, auzia eta elkartasun bazkaria

GANEX

Herriak primadera pitz dezan goiburupean ihauteriak antolatatu dituzte Sarako Izarra errugbi taldeak, Etxola gazte-txeak, hiru ikastetxeek, Zazpiak Bat taldeak eta Axuri Artek otsailaren 26an eta 27an. Larunbatean etxez etxeko eskea eginen dute gazteek. Igandean, 11:00etan desfilea abiatuko da gaztetxetik. 12:00etan Zantzarren auzia eginen dute, kantu, mutxiko eta sorginen saldarekin. 13:30ean elkartasun bazkaria izanen dute Lur Berri gelan. Menuan, eltzeakaria, oilaskoa curry saltsa irrisarekin, eta gasna izanen dute. Desertarentzat herritarrek pastiza edo mahatamiak eramantuzakete eta bertan banatuko dute (arnoak, kafea eta ttotta barne). Bazkarirako txartelak hilaren 20a baino



Ihauteriak duela bi urte.

lehen erreserbatu behar ziren, 12 euro ordainduta.

Kultura, animazio eta hizkuntza politika karguduna Urte hasieratik Arrangoitzeko Jose Cazaubon da herriko etxeko kultur, animazio eta hizkuntza politika karguduna. Momentuko denbora erdiz ari da, baina martxotik landa denbora osoz ariko da herriko etxean. Hurrengo aldizkarian hobeki ezagutuko dugu.



GANEX

Taloak partitzeko tresna Portuan

Taloak egiteko enpresa dauka Sebastien Gonzalez Azkaingo pilotari izanak. Talo horiek partitzeko tresna bat ezarri du Portuko jatetxearen aitzinean. Tresna hori Santinazioko aparkalekuan zegoen, baina moldaketa lanengatik tren tikiaren aparkalekua itxia dagoenez, Portura lekualdatu dute.



UTZITAKOIA

Basurdeak Euskal Herriko liga ospatzen

Joan den urtean Sarako Izarra errugbi taldeak Euskal Herriko ligako txapela irabazi zuen. Pandemiarengatik ez zuten ohoratu orduan basurdeek, beraz otsailaren 5ean Zugarramurdiko Azketa jatetxean egin zuten bazkari eder batekin. Jokalari eta buruzagiekin, denera 30 bat lagun baziren.



GANEX

Eskolako burasoen selauru hustea

Eskola publikoko buraso elkarteak antolatutako selauru hustea iragan zen otsailaren 13an igande goiz-arratsaldez kiroldegian. 30 bat mahai baziren beraien puskekin. Jende ainitz ibili zen, baita erosten ere. Antolatzaileak kontent ziren eta eskerrak eman zizkieten denei.

Erretretatuen tripotx bazkaria martxoaren 5ean izanen da azkenean

GANEX

Urtero bezala, Sarako Herriko Kontseiluak erretretan diren guztiendako tripotx bazkaria eskainiko du aurten ere. Hasieran otsailaren 12an pentsatua zuten, baina Covid-19arengatik ezeztatu zuten. Orain erabaki dute martxoaren

5ean egitea, larunbatarekin, 12:30ean, Lur Berrin. Otsailaren 25a baino lehen eman behar da izena herriko etxean. Autorik gabe direnendako, Sarako Herriko Etxeak bilketa bat proposatu du. Horretarako abisua eman behar da izena ematerakoan.



Jende andana bildu zen plazan. JL BESSONART



Joaldunak karrikan. JL BESSONART

Baldintza normaletan iragan dira ihauteriak

'Sua Zanpantzarrari Ufa Euskarari' lemak oinarritu du ekitaldia eta jende anitz ibili da

JL BESSONART

Aspaldiko partez ihauteriak iragan dira baldintza normaletan, *Sua Zanpantzarrari Ufa Euskarari* horra zer lemak oinarritu duen ekitaldia. Ortziralean eskolekin hasi ihauterietik segitu dute biharamunean eta jendetzak goiti egin zuen arratsalde apala artean. Aroa lagun, desfile erraldoi, musikatu eta koloretsuak munda bat bildu zuen, parte-hartzaileen atseginetan. Betiko zigante, joaldun, zirtzil eta hamarka mozorrotu, belaualdi guzietakoek bete zuten herriko plaza. Eguerdiko arroltze-moleta lehiaketak bazka-



Zanpantzar sutan.

rira gomita zabaldu zuen eta eguzkia lotara zihoalarik, Zanpantzar sutara kondentatu zuten gure etsipen guzietan sortzaile bezala. Bestak iraun zuen beranta arte edantegi eta animazio musikalen artean.

Hainbat gai biltzen dituen azken aldizkaria banatu du herriko etxeak

JL BESSONART

Herriko etxe azken aldizkaria banatua izan da postontzietan, eta aipagai ditu alor anitzetan iraganeko ekintzak baita geroari buruzko proiektuak ere. Nahas-mahas aurki daitezke, azkeneko uholdeak, AHT trenbide berria Euskal Herrian, hirigintza, herriko etxe bizi, laborantza eta oihanak, haurtzarora, CCAS-en berri, herriko bizitzari dagozkion kirolak, kultura, ekonomia, ingurumena, lanak, jendeen kontaketa eta abar. Bakoitzak irakurri eta aztertzen ahalko ditu hainbat alorreta-

ko gaiak. Ene aldetik azpimarrara nezake, herritar emazte gazte bat, Izar Jorajuria, laborantzari lotu baita bere ahizpa Anaizekin, Serres auzoan, sorturik Earl Jorajuria Ahizpak enpresa. Xerriki, arroltze eta oilaskoak ekoizten dituzte eta salgai zuzenean. Hurbileko produktuak ez ote dira sanoenak? Bertzalde heldu diren sei hilabeteko kultur ekitaldiak ere aurkeztuak dira bertze liburuxka batean, *Larrekoletxu* tituluarekin. Bada hauta kontzertu, dantza, antzerki, bertsu, zine, mintzaldi eta erakusketa franko.

Arrantzarien elkarteak merkatu berezia egin zuen sasoi berriaren atarian

JL BESSONART

Arrantza denboraldia martxoaren 12an abiatuko da eta kari hortara arrantzarien elkarteak merkatu berezia antolatu zuen pilota plazan eraikia den xapitopean. Salerosketan sekulako material berezia aurkitzen ahal zen arrantzarako eta arrantzarako kartak ere banatu ziren. Jende anitz ibili zen eta hauen artean gazte franko. Hari beretik, Urdazuriko Arrantzarien Elkarteak biltzar nagusia egitekoa zuen otsailaren 20an Saint-Christophe lizeoan.



Gazte franko ibili zen merkatuan.

Hitzetik Urratsera bertso saioa Larrekon martxoaren 13an

JL BESSONART

Aurten formatua aldatu eta 2021ean iragan diren txapelketa bakoitzetik bi finalista etorriko dira martxoaren 13an, igandean 16:00etan Larrekon egingen den *Hitzetik Urratsera* bertso saioa. Hala nola, Xilaba finalean egon diren Miren

Artetxe eta Odei Barroso hor izanen dira, baita Nafarroako txapelduna Saioa Alkaiza eta Eneko Lazkoz txapeldunordea eta Bizkaiko txapelduna den Nerea Ibarzabal eta Jone Uria txapeldunordea ere. Sarrerak salgai daude www.herriurrats.eus/sarrerak atarian.



Beti Gazte taldea Pobesen (Araba), gizonzkoek 600 kiloko txapela eta emakumeek 500eko finalerako txartela lortu ondotik.

Euskal Herriko txapel guztiak lortzeko moduan da Beti Gazte

600 kiloko gizasemeek txapela lortu zuten otsailaren 12an Pobesen eta asteburu honetan egingen dituzte azken tiraldiak

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko sokatira txapelketa azken txanpan sartua da. Zehazki larunbat honetan, otsailak 26, egingen dituzte azken tiraldiak Laukizen (Bizkaia). Emakumezkoen 500 kiloko finala jokatu dute Beti Gazte, Amaiur, Gaztedi, Ibarra, Txantrea eta Abadiño

A taldeek. Modu berean, gizonzkoen pisu arineneko txapelketa, 560 kilokoa, bertan jokatu da, jardunaldi bakarrean. Beti Gazte izanen da eskualdeko ordezkari bakarra kategorian horretan. Abadiño, Berriozar, Gaztedi, Goiherri, Ibarra, Murueta, Ñapurak eta Txantrea ere lehiatuko dira.

Hau idazterakoan, jokatu-tako txapel guztiak (gizasemeen 680, 640 eta 600 kilokoa eta emakumeen 540 kilokoa) irabaziak ditu Beti Gaztek. Horietan azkena, gizonzkoen 600 kilokoa Pobesen (Araba) lortu zuten lesakarrek. Zortzikote txapeldunean Karmelo Mitxelena, Oskar Telletxea, Unai Gurrutxaga, Guy Larralde (Ezpeleta), Beñardo Iantzi, Beñat Ordoki, Iñigo Altzugarai eta Gerardo Telletxea aritu ziren tiran, Paskual Taberna entrenatzaile eta Julen Palenzuela laguntzaile zutela.

Otsailaren 19an Ibarra jokatzekoa zen txapelketa mistoa irabazi balu, Euskal Herriko txapel guztien jabe egiteko moduan da Beti Gazte.

Malerrekako eskuz binakako finalak martxoaren 5ean jokatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Malerrekako eskuz binakako 20. pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte martxoaren 5ean Donezteben eta Lesakan, 10:00etan hasita. Donezteben maila nagusietakoak ariko dira.

Kadeteak: Etxeberría eta Leonet (Oiarpe) - Beitia eta Canseco (Joko Alai).

Jubenilak: Apezetxea eta Agesta (Erreka) - Arrillaga eta Arroita (Joko Alai).

Seniorrak: Oskoz (Oberena) eta Oliden (Lapke) - Larrañaga eta Garmendia (Lapke).

Elite: Elizalde (Zugarralde) eta Urruzola (Pagazpe) - Exposito (Hernani) eta Aizpuru (Tolosa Aurrera).

Lesakan pilotari ttikienak ariko dira.

Benjaminak: Iguzkiagirre eta Igoa (Bortziriki) - Sarasa eta Ramirez (Berriozar).

Alebinak: Sagastibeltza eta Ugartemendia (Aurrera) - Leiza eta Ezkurra (Erreka). **Infantiletak** finalistak erabaki gabe zeuden hau idazterakoan.

Iruñeko Alde Zaharreko VIII. Erremonte txapelketa jokoan da Labriten

TTIPI-TTAPA

Iruñeko Alde Zaharreko VIII. Erremonte Profesionaleko txapelketa otsailaren 17an abiatu zuten Labrit pilotalekuan. Iruñeko Udalak, Euskal Jai Remonte Fundazioak eta e•remonte enpresak antolatutako txapelketan sei bikote ari dira, bi multzotan banatuak. Lehen multzoan Beñat-Ion, Aimar Jabalera doneztebarra eta Agirrezabala eta Eloi Otxandorena doneztebarra eta Otano ari dira. Bigarren multzoan Xanti Uterga doneztebarra eta Garces, Matxin III.a eta Barri-

kart eta Zeberio II.a eta Aimar Saldias oiztarra.

Otsailaren 17ko lehen jardunaldiaren ondotik, hilaren 24an, 19:00etan hasiko den jaialdian, Beñat eta Ion, Otxandorena eta Otanoren kontra ariko dira eta Uterga eta Garces, Zeberio II.a eta Saldiasen kontra.

Martxoaren 4an jokatu da lehen faseko hirugarren eta azken jardunaldia. Jabalera eta Agirrezabala, Otxandorena eta Otanoren kontra eta Matxin III.a eta Barrikart, Zeberio II.a eta Saldiasen kontra.



Txapelketaren aurkezpena egin zuten otsailaren 15ean. UTZITAKOA

Finalerdiak martxoaren 11n eta finala martxoaren 18an

Multzo bakoitzeko bi lehenbiziko bikoteek jokatu dituzte finalerdiak martxoaren 11n, eta finala eta hirugarren

posturako lehia martxoaren 18an jokatu dituzte. Jaialdi guztiak Labriten izanen dira, 19:00etan hasita. Sarrera 5 euro kobratuko da eta Adano elkarteari emanen zaio osorik.



Adur Etxezarreta eskaitzaile aresoarra jautsiera batean. UTZITAKO ARGAZKIA

Adur Etxezarretak zapore gazi-goza dakar Olinpiadetatik

Eskiatzaile aresoarra hamazazpigarren izan zen jautsieran, baina pistatik atera zen Super G-8 proban Beijingen (Txina)

TTIPI-TTAPA

XXIV. Neguko Olinpiar Jokoen parte hartu zuen lehen aldiz Adur Etxezarreta eskiatzaile aresoarra Beijingen (Txina). Jautsierako proban hamazazpigarren postua eskuratu zuen otsailaren 6an, orain arte Euskal Herriko nahiz espainiar estatuko eskiatzaileek

inoiz lortu gabeko postua, 1:44:12ko denbora eginda. «Egun horretan, kabinan irteerara nindoanean urte hauetan guztietan pasatu behar izan dudana etorri zitzaidan burura eta horrek asebeste ninduen, handia izan zen».

Proba bukatu berritan egindako lanarekin ere pozik azal-

du zen Etxezarreta: «Pozik nago egindakoarekin, beharbada ez da aste honetan egin dudan jautsiera onena izan, eta une batzuetan nahi baino gehiago kosta zait, baina jautsiera garbia izan da. Elurra baldintza ikusgarrietan zegoen». Izan ere, entrenamendu proban bigarren postua lortu zuen aresoarra, denen harridurarako.

Otsailaren 8an egindako Super G-8 modalitateko proban, berriz, hasi eta berehala markatutako ibilbidetik atera zen Etxezarreta eta ez zuen proba bukatzerik izan. Azken proba horretan gehixeago ez egin izanaren gaziarekin baina joku olinpikoen balorazio positiboa egin du eskiatzaile aresoarra: «Jautsierako emaitza positiboa eta oso ona izan zen niretzat, eta uste dut egun hauetan maila onean eskiatzen aritu naizela. Munduko onekin batera izan naiz, eta hori da etxera daramadana».

Baina ez du gelditzeko aukerarik eta aurrera begira, Munduko Kopako proba izango du Etxezarretak martxoaren 3tik 6ra Kvitfjell-en (Norvegia) eta martxoaren 14tik 20ra Europako Kopan lehiatuko da Soldeo El Tarter-en (Andorra).

Berako Mendi Maratoi Erdirako izen-ematea martxoaren 1ean

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 10ean egingen den Berako Mendi Maratoi Erdian izena emateko epea martxoaren 1ean irekiko da, 15:00etatik aitzinera, www.pb-organization.com webgunean. 2019an lasterketa egin zen azken aldian bezala, 525 dortsal egonen dira eskuragarri, Manttalek jakinarazi duenez. Dortsalak agortzen ez badira, izen-ematea apirilaren 7an itxiko da. Izen-ematearen prezioa 28 eurokoa izanen da korrikalari federatuentzat eta 32 euro federatu gabeentzat. Izena eman ahal izateko ez da beharrezkoa izan aitzinetik webgunean erregistratua egotea. Izena emandakoan ez da ordaindutakoa itzuliko, baina titularitatea apirilaren 7ra arte aldatu ahal izanen da, lasterketa aitzineko ortzegunera arte. Aurten, Berako Mendi Maratoi Erdia Nafarroako Mendi Lasterketen Banakako Txapelketaren parte izanen da.



UTZITAKOIA

Infantil mailako pilotariak finalista

Nafarroako Kirol Jokoetako infantil mailako finala Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu zuten otsailaren 12an. Bertan, infantil mailan, Lesakako Amaiur eta Ainitze Martinez ahizpek 18-14 irabazi zieten Arantzako Kattin Madariagari eta Sunbillako Nahia Bertizi.



UTZITAKOIA

Etxeberria eta Mindegia finalean

Martxoaren 6an Azpeitian jokatu den Binakako Urrezko Aizkolari txapelketaren finalean izanen dira Zigako Joxean Etxeberria eta Zubietako Patxi Mindegia. Bikote sendoa osatu dute eta Arabako Errioxan ilbeltzaren 16an eta otsailaren 13an jokatu dituzten bi saioetan garaile atera dira.

OTSAILAK 24 - MARTXOAK 10

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKO IRUDIA

LEITZA Ziklo feminista

Ikastaroak, kontzertua, manifestazioa eta antzerkia. Lañaide taldearen eta Leitzako Udalaren eskutik. Martxoaren 5etik 13ra, Leitzan.

MARTXOAK 8

LEITZA

Ziklo feminista

Martxoaren 5ean goizean zoru pelbikoa lantzeko saioa eta haurrentzako jokoak. 23:30ean Las Sexpears taldearen kontzertua Atekabeltzen.

Martxoaren 8an manifestazioa. Martxoaren 9an autodefentsa feministako tailerra 16:00etan. Martxoaren 13an 'Kasilda, bukatzen ez den sua' antzerkia Herri Aretoan 19:00etan.

BERA

Bazan-Bidasoko manifestazioa

Martxoaren 6an, arratsaldean.

XII. Bortzirietako Emakumeen Mendi Martxa

Martxoaren 6an, 09:00etan.

ELIZONDO

'Indarkeria kontsumitzen dugu?' erakusketa

Baztango liburutegian, martxoaren 7tik 18ra.

INAUTERIAK

LESAKA

Inauteriak

Otsailaren 24tik martxoaren 1era.

ELIZONDO

Orakunde eta inauteriak

Otsailaren 24tik 26ra.

DONEZTEBE

Inauteriak

Otsailaren 25tik 26ra.

BERA

Inauteriak

Otsailaren 26tik 28ra.

GOIZUETA

Inauteriak eta kontuen eguna

Otsailaren 27tik martxoaren 1era eta martxoaren 5ean.

AZOKAK

LESAKA

Merkatu ttikia

Beheko plazan, otsailaren 26an, 10:00etatik 14:30era.

ELIZONDO

Baztango artisauek eta bertako zaporeak

Herriko plazan, martxoaren 5ean, 10:00etatik 14:00etara.

KONTZERTUAK

LESAKA

Organo, soprano eta tronpeta kontzertua

San Martin elizan, martxoaren 5ean, 18:00etan.

BERA

lñoren ero ni taldea

Katakun, otsailaren 26an, 20:00etan.

Donostiako Udalaren txistulari taldea

Berako dantzariekin. Kultur etxean, martxoaren 9an, 17:00etan.

ELIZONDO

Amak taldea

Arizkunenean, martxoaren 6an, 19:00etan.

ZINEMA

DONEZTEBE

'Luca' filma

Zineman, otsailaren 27an, 17:00etan. Sarrerak euro batean bazkideentzat eta bi eurotan ez bazkideentzat.

LEITZA

Zinema

Herri aretoan, martxoaren 5ean. 16:30ean 'Scream' filma, 19:00etan 'Mendiak 1976' dokumentala. Sarrerak 45 minutu aurretik leihatilan, 4,5 eurotan lehenbizikoa eta euro batean bigarrena.

LESAKA

Haurrentzako zinema

Harriondoan, martxoaren 6an.

BERTZELAKOAK

GARTZAIN

Mahai-jokoan kutxa ibiltaria

Otsailaren 26an eta 27an.

LEITZA

Arturo Vinuesa medikuaren hitzaldia

Pandemia, txertoa eta osasuna. Atekabeltzen, martxoaren 3an.

'Harri minak' antzezlan

Bonbon beltz antzerki taldea. Herri Aretoan, martxoaren 6an, 19:00etan. Sarrerak 45 minutu aurretik 8 eurotan.

BERA

Euskal Herriko txistularien eguna

Dianak, elkartearen batzarra, omenaldia eta dantza eta txistu jaialdia. Martxoaren 5ean.

'Arkanbele kantak' errezitaldia

Kultur etxean, martxoaren 10ean, 17:00etan.

«Herrian pixkanaka bestetako ilusioa berreskuratzen ari dira»

IMANOL IRIBARREN JAURENA URDAZUBIKO GAZTEA



«23 urteko mutiko lasaia, soziala, enpatikoa, kirolaria, langilea eta anbizio handikoa» da Imanol Iribarren Jaurena (Urdazubi, 1998). Bere adineko edozein gazteren «zaletasun berdintsuak» ditu; «lagunekin egotea, kirola egitea, bidaiatzea... Bereziki maite dut mendian lasterka egitea eta eskiatzea, eta arraroa emanen du, baina lana da daukadan bertze zaletasun bat. Lanean gustura bazaude, hobby bat izatera pasatzen da». Ez du denborarik galtzen, eta Urdazubiko gazteen juntan sartu da berriki, herriko hainbat kontu antolatzeke.

Lan munduan

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Enpresa eta Administrazio Zuzendaritza ikasketak egin ditu, eta «zortea» daukala aitortu du, «etxean dau-

kagu enpresa, Josenea. Ahal izan nuenean hasi nintzen bertan lanean; hasieran autoen garbiketarako egiten, gero gasolindegian autoei gasolina ematen, ondotik administrazioan laguntzen...». Orain «denetik» egiten du; «administrazioan, gasoilaren banaketa etxeetara, mantentze-lanak eta garbiketa...». Honez gain, «gauaren munduan» lan egitea gustuko du, eta Lur aretoan ari da duela bortz urte.

Gazteen junta

Herriko bortz gaztek osatzen dute Urdazubiko gazteen jun-

«IHAUTERIAK BIZI DUGUN EGOERA KONTUAN HARTUZ ANTOLATU DITUGU»

ta, eta bestak eta bertzelako jardunaldiak antolatzeaz arduratzen dira; «mus txapelketak, afariak... Arras garrantzitsua da herriarendako». Estitxu, Jon eta Maddik berriki utzi egin dute eta haien partez hiru gazte sartu dira, haien artean Iribarren.

«Jon, Iban eta ni kuadrilla berekoak gara, eta bagenekien noizbait sartu beharko genuela. Hortaz, bileraren aitzineko astean solastatu ginen eta hirurak borondatez aurkeztu ginen». Orain, «Jaione Perurena, Angel Arozarena, Jon Irigoien, Iban Blanco eta ni gaude juntan. Bi urte darmatzagu Covid afera honekin eta gogotsu gaude bestaren bat ospatzeko. Gauzak ongi antolatu behar ditugu, bizi dugun egoera kontuan hartuz».

Herriko bestak hurbiltzean biltzen dira normalean, «hasieran bi astetik behin juntatzen gara gure artean gauzak solastatzeko, gero bilera bat antolatzen dugu gazteen artean ideiak entzuteko eta denon iritzia kontuan hartzeko».

Ihauterietarako prest

Otsaileko azken asteburuan ospatu ohi dituzte ihauteriak Urdazubian, «baina aurtengo kontua arraroa izan da, ez genekien seguru egin edo ez egin, eta azkenean erabaki dugu igandean Dantxarinereko bentetan ibiltzea eta astelehenean etxeetan». Etxe guzietan «ateak irekitzeko prest dauden galdetzea» erabaki dute, «ulerkorra da edozeinek ezetz erratea birusari beldurra diolako».

Segurtasun neurriak zehazteko beharra «arras garbi» utzi zuten bileran, «kontzientiak

«ENPRESEN MUNDUAN IKASTEKO AUNITZ DUT ORAINDIK»

gara daukagun egoeraz. Igandean musukoarekin ibiliko gara eta ahalik eta denbora gutien benta bakoitzean, arriskua murrizteko». Astelehenean, berriz, «ateak irekiko dizkiguten etxeetako jabeei kanpoan ematea eskatu diegu, gehienbat haien segurtasunagatik. Denok badakigu zer egin eta zein diren hartu beharreko neurriak». Aurtengo ihauteriak «arras azkarrak» izanen dira, «etxe eta bentetan ahalik eta denbora gutien egonez arriskua aunitz murriztuko baitugu».

«Geroz eta gehiago» ikusten du Iribarrenek ilusioa herrian. «Normala da hasieran jendeak beldurra izatea, eta bi urteko geldialdi honetara nolabait moldatu gara, baina asteburuetan herrikoen artean geroz eta jende gehiago elkartzen gara. Ez kuadrillakoak bakarrik, adin guztietakoak elkartzen gara ostatuan eta herrian pixkanaka bestetako ilusio hori hartzen ari dira. Hori izan zen juntan sartzeko motibazioetako bat».

Etorkizunera begira

Aurten jarduera gehiago antolatzeke asmoa dute, «eta nolabait berritasunak sartu nahi ditugu. Bileretan nabari da gauza gehiago antolatzeke asmoa dugula eta ikusiko da nola joanen diren gauzak».

Berari dagokionez, «ikasteke aunitz» du oraino, eta «enpresako gauzak gutinaka ikasten joateko» asmoa du, «bai nire gurasoengandik bai eta enpresako langile guztien-gandik ere».

Epe luzera, aldiz, ideiak garbi ditu; «aunitz gustatuko litzaidake etxe propioa edukitzea eta familia bat sortzea. Enpresa handiagoga egiteko asmoa eta gogoia dut, baina badakit ez dela lan erraza izanen». Gainera, proiektu berri batean ari da lanean, «ea laster dena ongi bideratu eta aitzinera eramatea lortzen dugun».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

ERRENTAN EMATEKO

ELIZONDO. Baztanberri aldean ekainera arte apartamentua errentan emateko. Sukalde-egongela, bainu-gela eta logela. Eguzkitsua. Iggogailua eta berogailua. Mobleztatua. ☎649 44 67 32.

ERRENTAN HARTZEKO

LESAKAN edo BERAN. Bikote bat gara, umerik eta animaliarik gabe. Irailetik aurrera etxe baten beharra dugu. ☎629 83 77 95.

KONPARTITUAK

DONOSTIA. Ikasleen pisu batean gela bat errentan emateko apirilera, maiatzera eta ekainera. Deitu konpromisorik gabe. ☎617 56 93 46.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Bidasoa karrikan garajeko marra errentan emateko. ☎680 54 98 08.

LANA

ESKAINTZAK

BERA. Larunbat eta igandetan adineko bat zaintzeko zaintzaile euskalduna behar dute. ☎695 76 66 26.

SARA. Heldu tetraplegiko, autonomo eta aktiboa batekin asteburuetan lan egiteko laguntzailea behar dute. ☎(0033) 610 75 21 71.

BERA. Beola Etxea Bentan lanaldi jarraian aritzeko biltegi zainaria behar dute. Eskorga jasotzaileko agiria duena eta frantsesa dakiena. Bidali curriculumak beolaetxea@gmail.com edo deitu. ☎948 63 07 09.

BERA. Auzoa ostatu-jatetxean sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dituzte. Interesatuak idatzi Whatsapez. ☎657 47 20 20.

ETXALARKO Bentan, harreran aritzeko langilea behar dute, egun osoko lanaldian. ☎948 63 50 00.

ETXALARKO Bentan, gauez zaintza lanak egiteko langilea behar dute. Otsailetik maiatzera astean bi egu-

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

nez, eta ekainetik aitzinera lanaldi osoan. ☎948 63 50 00.

IBARDIN. Lanerako pertsona bat behar dute. Interesatuak curriculumak bidalie: ibardin.oferta@gmail.com.

ORONÓZ-MUGAIRI. Urgain jatetxean bi langile behar dituzte, zerbitzaria eta sukalde laguntzailea. Deitu edo bidali curriculumak reservas@hotelurgain.com. ☎637 71 53 84.

BERA. Errekalde ostatuan zerbitzaria behar dute ortziraletan, larunbatetan eta igandetan lan egiteko. errekaldeostatu@hotmail.com.

BERA. Zalain jatetxean zerbitzaria eta sukalde laguntzailea behar dituzte. ☎617 72 34 75.

LARHUN. Larun Gain bentan, Aste Santutik aitzinera lanerako bi zerbitzari behar dituzte. Beharrezkoa frantsesez pixka bat jakitea. ☎605 21 00 55.

DANTXARINEA. Mikelenborda jatetxean langileak behar dituzte. Bat egun osoz aritzeko eta bertzea as-teburuetarako. ☎690 38 81 34.

SUNBILLA. Ariztigail kanpinean sukaldaria eta zerbitzaria behar dituzte. ☎948 45 05 40.

ESKARIAK

Emakume bat adinekoak edo haurrak zaintzen ariko litzateke. Esperientziaduna. ☎677 24 93 27.

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,43
- 1.koa 4,31
- 2.koa 4,19

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,54
- 1.koa 4,40
- 2.koa 4,29

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,53/4,63
- Zaldi-behorrak 1,90/2,07

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,60/6,70
- 8-10 kilokoak: 5,40/6,10

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 45 €

Zerri gizona 1,088 €

Zerramak 0,360€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua otsailaren 4tik 11ra bitarteko prezioak)

DENETARIK

SALGAI

Etzerako **egur loteak** egiten dira, etxera eramateko aukerarekin. Horretaz gain, bertze edonolako lanak ere egiten dira, belai **itxiturak**, **garbiketa** edo mantentze lanak... Deitu konpromisorik gabe. ☎618 20 23 95.



Etzeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. ☎629 45 14 26.



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. Informazio gehiagorendako deitu konpromisorik gabe. ☎690 08 56 65.



Egurrezko ontzitegi lakatua (2,08 metroko altuera x 1,60 metroko zabalera), **egurrezko mahai lakatua** (1,20 metro, 1,60 metrora arte handitzen dena) eta egurrezko lau **aulki** lakatu tapizatuak salgai. ☎610 38 58 67.




Sofa, relax besaulkia, belarriidun besaulkia, oin-aulkia, egurrezko bi mahai (bat lakatu zuria eta bertzea bernizatua) eta alfonbra salgai. Dena egoera onean. Dena batera edo banaka erosteko aukera. ☎610 38 58 67.

IXAPARTEGI
INMOBILIARIA

Arraioz (Baztan):
Herrigunean bi
lur eremu salgai,
familia bakarreko etxea
eta bi bizitzako
etxea eraikitzeko.

API Pinar 7- IRUN
☎ 656 708 180
✉ info@inmotxapartegi.com
www.inmotxapartegi.com



Fianbreak xehatzeko makina salgai, prezio onean. ☎609 06 85 20.

MOTORRAK

SALGAI



Audi A4 autoa salgai, 2011koa, 2.0 TDI, 140 zaldi. Egoera ezin hobean, gutti ibilia eta beti garajejan egondakoa. 15.000 eurotan. ☎653 74 95 54 / 615 70 38 76.



Ford Fiesta salgai. 2017koa. 36.500 km. Egoera bikainean, berria bezala. 8.500 eurotan. ☎647 93 19 41.

EROSI

2018tik aitzinerako **bigarren eskuko autoa** erosi nahi dute: Berlingo, Partner, Rifter, Dacia dokker... ☎626 25 06 30.

ANIMALIAK

SALGAI

Bortz zerri salgai. ☎630 94 75 24.

LAN ESKAINTZA

Industriako makineria berezia diseinatu eta muntatzen duen enpresa honek, honako hauek behar ditu:

- Muntatzaile mekanikoak.
- Soldatzaileak.
- Mekanizatzaileak. (Tornulariak – Fresatzaileak)

Baldintzak:

- Mekanikari buruzko oinarrizko ezagutzak izatea.
- Esperientzia ez da ezinbestekoa.

Eskaintzen da:

- Berehala lanean hastea.
- Prestakuntza zabala mekanika industrialean.

Interesaturik egonez gero bidali CVa helbide honetara:
administracion@ingename.es

INGENIERÍA NAVARRA MECÁNICA
Polígono Comarca II C/A Nave 12
31191 Barbatáin - Navarra



INGENIERÍA
NAVARRA
MECÁNICA



GOIZUETA. Collie eta doberman nahasketako txakurkumeak salgai 150 eurotan. Baserrian hazitakoak. Interesatuak idatzi Whatsapp bidez. ☎636 08 98 84

OPARITZEKO



ETXALAR. 6 zakurkume mestizo oparitzeko. ☎686 67 31 05.



Zakurra oparitzeko. Urte bat eta hiru hilabete ditut eta arra naiz. Ongi zainduko nauen norbaiten bila nabil... Prest? ☎629 73 42 63.



Lau hilabeteko collie mestizo **zakurkume arra** oparitzeko. ☎637 71 53 83.



948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak  **SUZUKI**

SUZUKI VITARA
Modelo berria • 5 ate



NISSAN TERRANO II 



www.mendaurmotor.es



WEB DISEINUA

Enpresa, elkarre eta erakundeentzako web orriak gailu guztietara egokituak.

Landetxeak - Komertzioak - Gremioak

Ordenagailu, tablet eta mibiletarara egokitua

Testu eta argazki galeriak

Kontaktu formularioa

Lokalizazio-mapa

Hizkuntzak aukeran



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tppi.eus
www.kulturkari.com

**ESKATU
AURRE
KONTUA**

URTEURRENA

**Juan
ETXEBERRIA ETXEBERT**

Elizondon, 2021eko otsailaren 26an,
74 urte zituela

I. urteurrena

Nahiz eta ez egon
gure begien aurrean,
hor zaude
gure bihotzean.



ETXEKOAK

OROIGARRIA

**Maria Victoria
CASAJUS HITA**
Toia

Iruñean hil zen otsailaren 1ean,
55 urte zituela

Erraza izan zen zu maitatzea,
baina zaila izanen da
zutaz atzentzea.



ELIZONDOKO SENIDEAK

OROIGARRIA



**Karmen
KARRIKABURU
KARRIKABURU**

Ama, amatxi, gure laguna
ondora biltzen gintuzuna
aitzinerat ere gure artean
betiko egonen zarena.

Maite zaitugu!

ETXEKOAK

OROIGARRIA

**Juliana
BAZTERRIKA LEGARRETA**

Iturenen hil zen, 2022ko urtarrilaren 31n,
95 urte zituela

Maitagarria eta maitatua izan zara.

Zure goxotasuna bihotzean
betiko geldituko zaigu.
Agur eta ohore, Juliana.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA



**Rosario
KARRIKABURU MAIA**

Arraiozen, 2022ko otsailaren 12an,
99 urte zituela

Zu izan zara familiako zutabea
Denak zure ondoan elkartuta
Argentinatik hasi eta Arraiozera
Eskerrik beroenak izeba maitea.

ETXEKOAK

URTEURRENA

**Asier
ARANGUREN ERRAZKIN**

Berrobi-Lesaka, 2021eko otsailaren 27an
I. urteurrena

Jaio orduko heriotza zor
guztiok gara jakitun
hala ta guztiz heriotzarekin
ez dugu nahi izan lagun
Urte bat jada, borroka egin ondoren,
alde egin zenun
Eskerrik asko denagatik
Beti gure bihotzetan.

Maite zaitugu.

ETXEKOAK



OROIGARRIA

**Mari Karmen
PETRIRENA ARRETXEA**

2022ko otsailaren 9an hil zen Leitza,
74 urte zituela

Gure etxean igarotako momentu goxo,
alai eta umoretsuak oroituko ditugu.
Badugu zainduko gaituen beste izar bat zeruan.

Betiko gure bihotzean, Mari Karmen.
Bidaia on!



MARI JOSE, KIZKITZA, AMAIA, IZARO, IERA, AITOR, ARITZ ETA RAUL

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

HILBERRIAK

- **Antoine Irigoien**, Sarakoa, urtarrilaren 31n, 94 urte zituela.
- **Marinette Duhauvet**, Sarakoa, urtarrilaren 21ean, 69 urte zituela.
- **Aurore Hardeune**, Sarakoa, urtarrilaren 27an, 42 urte zituela.
- **M^a Luisa Olague Oskoz**, Elizondokoa, otsailaren 2an, 88 urte zituela.
- **Isidoro Otxotorena Munarriz**, Elizondokoa, otsailaren 3an, 99 urte zituela.
- **Angelita Barberia Juanikotena**, Erratzukoa, otsailaren 4an, 96 urte zituela.
- **Jose Antonio Mendia Ibazeta**, Doneztebekoa, otsailaren 5ean, 79 urte zituela.
- **Angel Agerrebere Nemours**, Arizkungoa, otsailaren 5ean, 61 urte zituela.
- **Angel Iparragirre Zubieta**, Etxalarkoa, otsailaren 5ean, 80 urte zituela.
- **Karmen Karrikaburu Karrikaburu**, Oronoz-Mugairikoa, otsailaren 6an, 80 urte zituela.
- **Maritxu Istilart Arraztoa**, Elizondokoa, otsailaren 6an, 93 urte zituela.
- **Francisco Iribarren Inda**, Arizkungoa, otsailaren 8an, 74 urte zituela.
- **M^a Isabel Arriada Irungarai**, Urdazubikoa, otsailaren 8an, 55 urte zituela.
- **M^a Carmen Petrirena Arretxea**, Leitzakoa, otsailaren 9an, 74 urte zituela.
- **Juanita Legarreta Mitxelena**, Berakoa, otsailaren 9an, 91 urte zituela.
- **Francisco Barberena Etxalar**, Elizondokoa, otsailaren 10ean, 77 urte zituela.
- **Rosario Karrikaburu Maia**, Arraiozkoa, otsailaren 12an, 99 urte zituela.
- **Junkal Iturria Iparragirre**, Arantzakoa, otsailaren 12an, 52 urte zituela.
- **Ramon Fernandez Soraluze**, Elizondokoa, otsailaren 13an, 81 urte zituela.
- **Jose Luis De Dios Barrientos**, Berakoa, otsailaren 13an, 57 urte zituela.
- **Sabino Mariezkurrena Hernandorena**, Leitzakoa, otsailaren 14an, 76 urte zituela.
- **Martin Urrutia Antxorena**, Arizkungoa, otsailaren 15ean, 85 urte zituela.
- **Mikel Organbide Goñi**, Arraiozkoa, otsailaren 15ean, 21 urte zituela.

URTEBETETZEAK



Eider Ariztia Garmendia
amaiurtarrak 4 urte bete ditu otsailaren 23an. Zorionak eta aunitz urtez!! Muxu haundi bat denen partetik!!



Enara Ariztia Garmendia
amaiurtarrak 2 urte bete ditu otsailaren 21ean. Zorionak eta aunitz urtez familia guziaren partetik!! Muxu haundi bat!!



Aitor eta Maddi Baleztena Truebak 8 urte beteko dituzte otsailaren 26an. Zorionak bie! Eratsun, Sunbilla eta Arantzako familiaren partetik.



Xuban Oteiza Bengotxea narbartearrak otsailaren 19an 3 urte bete ditu. Zorionak eta hiru muxu potolo!



Maider Narbarte Urrozek otsailaren 28an lau urte beteko ditu. Zorionak etxeko printzesari! Ongi-ongi pasa zure eguna zure ahizpa Aiora, amatxo eta attaren partetik. Muxu haundi bat.

Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

Bulegoan eta postaz TTIPI-

TTAPAREN bulegora edo bidali argazkia eta testua gutun-azal

batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Whatsappez 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €) edo ERRAN.EUSEN bitartez.

SORTZEAK

- **Aiyana Urbistondo**, Sarakoa urtarrilaren 25ean.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI



BAZTAN BIDASOA
Ehorzketaz Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com


Betiko taldea zu laguntzeka

PLAZAN BAZAN



DOMINOAN

Txanogorritxoren dominoak sei elementu hauek ditu: Amonaren etxola, ehiztariaren eskopeta, saskia, otsoa, zuhaitzak eta Txanogorritxo. Aipatutako elementuok marraztuz, bete itzazu hutsuneak domino zatiak zentzua izan dezan.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)




INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>




Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



ZORTZIKO TXIKIA


Aurki itzazu hiru neska-mutilen eta haien islaren artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.



			O		
	O		R	G	
			G		O
	A			D	
D		O			G
	R		D		

SUDOKUA

Nola esaten diozu goiko munstro handi honi, HERENSUGE ala DRAGOI? Egia esanda, biak dira onak, baina bigarrenak, sei hizki dituenaz, sudoku honetarako aitzakia eman digu. Beraz, bete itzazu hutsuneak DRAGOI hitza osatzen duten hizkiez (D, R, A, G, O eta I). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko. Bide batez, eman kolorea irudi hauei ere.




HITZ GEZIDUNAK

	Inausi		Pastel handiak		Laiekin ari-zen direnak		Zuen, baina haiei		Izanak, edukiak
	Bidaztiak		◆ Izena		Iturburu		Kontsonante bikoitza		Zakotea
	◆ Deitura								
	Erregai mota								
Ahaztua, ahantzia		Abestia					Zer lekutan?		
Etxean egon zalea		Buruzagi musulman					Asiako herritarra		
								Bokal errepikatua	
								Jupiterren satelitea	
Ortzi				Krisialdi					Potasioa
Hilda				Gisu					Edo
					Trebea, abila				
					Akabo				Animoak emateko hitza
			Kontsonantea						
			Kurkubita						
Neskatilak, neskatxak					Errepikatuz, gorotza			Musika nota	
Kontsonante bustia					Suitzako ibaia			Joan den urtean	
		Zerutiko ura				Sanferminetako marbxa			
		Kontsonante bikoitza				Ezkurak bi ditu			
Urrietako herritarra									Fosforoa
Iratzea, ira									Bokal mehea
					Orrazteko tresna				

◆ Kazetari eta idazle legasarra


GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Zerbaitetarako ahala edo eskubidea ematen duen paper edo plastiko zatia. [2] Gure lurraldeko udalerrria, Bortzirietan. [3] Sara, Ainhoa, Urdazubi eta Zugarramurdiko herriek osatutako elkarte. [4] Irten. [5] Antze, erti. [6] Mainera, modua. [7] Gure lurraldeko udalerrria, Bortzirietan. [8] Harri beltz. [9] Bilkura. [10] Baliatu. [11] Automobila, autoa.

ERANTZUNAK



ikastolak

HEZKUNTZA ERALDATZEN



Aurrematrikula:
martxoaren
7tik 11ra

Sortzailerak

AURREMATRIKULAZIOA 2022-2023

www.ikastola.eus



BAZTAN IKASTOLA
948 45 24 48



TANTIRUMAIRU IKASTOLA
948 63 73 08



LABIAGA IKASTOLA
948 63 01 72



Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

~%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

799 zenbakiko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera

Eneko Telletxea Iraola | IGANTZI

Onddo ta Punto - Kamiseta bat

Joakin Sagastibeltza Alduntzin | LEITZA

Salting Iruñea - Bi sarrera

Irigo Zubeldia Telletxea | SALDIAS

Taberna Edariak - Lote bat

Loli Pardal Perez | LESAKA

Martiko - Lote bat

Mikel Iturralde Elizetxe | BERROETA

Galaxy Park - Bi sarrera

Patxi Castillo Graziarena | OIARTZUN

Ikaslekar - Liburu bat

Idoia Elizegi Urrutia | ELIZONDO

Ikaslekar - Liburu bat

Virginia de la Parra | ZUGARRAMURDI

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Poltza bat

ARRATE ESTETIKA ZENTROA

Eliza karrika, 18 - Doneztebe



Azala zaintzeko produktuak

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



Sarrera bat

Galaxy Park

www.galaxypark.eus



Bi sarrera

**MU
SI
KA**



- Bastardix
- Dientes de Luna



- Euskal Herriko runba
- Yhtoyl

baga-biga
MUSIKA IDEIAK

www.baga-biga.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.txalaparta.eus



Zazpigerutze, 1 | Doneztebe | Tel.: 948 45 02 52